

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 6a / 543. zenbakia



## PAZKOAK03



Sinpletasunaren xarma.  
Txikitasunean handi.



Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxes: 943 76 70 58

## Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ate irristagarriak horman sartuak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak  
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE**  
AROTZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
610 884 020





**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



## ATREBENTZIAEZPADA/ Zeure ustez, zein da jaixetako egun onena? Eta ekitaldi gogokuena?

ERIK LIZARRALDE  
19 urteJON ALZOLA  
20 urteTERESA CABO  
34 urteARANTXA RUBIO  
26 urteJONE ARROITAJAUREGI  
33 urteAINTZANE REMENTERIA  
24 urte

Astelehena, jente gutxi ibiltzen dalako eta ambiente polita, giro ona egoten dalako. Sokamuturra asko gustatzen jat: gabian juergan ibili eta gero, zezenak ikustera jua.

Eguakitza eta astelehena izeten die egun onenak, herriko jentia bakarrik ibiltzen dalako. Zapatuan gehixegi... Kontzertuetan eta txosnetan ibiltzia gustatzen jat.

Astelehenian ibiltzen naiz gustora, egunez eta gabez lasai disfrutatzeko aukera dago-eta. Umiekin-eta egunez ibiltzen naiz gehixen. Bitorianatxoren jeitsiera asko gustatzen jat.

Neure ustez, zapatua, jente gehixago eta giro ederra egoten dalako. Gabez ibiltzen naiz, baiña egunez beurteten dot. Goizian zezenak ikustera juatia gustatzen jat.

Eibartarra naiz, eta hara juaten naiz jaixetan, trankil lo egitteko, Bideberri inguruan bizi naiz-eta. Ez naiz jaixetan ibiltzen, baina Luar Na Lubre ikustera gustora juango nitzake.

Astelehena gustatzen jat, herriko jentia giro polita sortzen dalako eta trankillago ibiltzeko aukera egoten dalako. Jaixetan txosnetan ibiltzia gustatzen jat gehixen.

## KONTUANHARTZEKOAK

## OHARRAK

## 1960AN JAIOTAKOEN AFARIA

1960an jaiotako bergarrek afaria egingo dute ekainaren 2lean Txarrantxa jatetxean. Egunean bertan frontoian elkartuko dira, 20:30ean. Interesatuak Kutxan irekitako kontuan eman dezakete izena, ekainaren 18a baino lehen.

## IKASTAROAK KZGUNEAN

KZGuneak herritar guztien dako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatu dituzte. Era berean, errelebuka lan egiten dutenei zuzendutako ikastaroa egongo da ekainaren 2tik 17ra. Argibide zabalagoak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen

## JARDUNENAGENDA

## PEGATINAK

Hi lagun, nerekin euskeraz jardun leloa duten pegatinak kaleratu ditu Jardunek Pazkoetarako. San Martin plazan eta tabernetan daude eskuragarri.

## OLINPIADAK

Olinpiadetako hurrengo jardunaldia ekainaren 14an jokatu da.

solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

## ODOL ATERATZEAK

Bergarako odol emaleek jakinarazi dutenez, ekainean odol ateratze bakarria egingo da, hilaren 25ean. Uztailean, berriz, bi egingo dira: hilaren 9an eta 23an.

## EADATUEN KIROL JAIA

Debagoieneko edadetuen XII. Kirol Jaia ospatuko da ekainaren 13an Bergarako kiroldegian. Izenematea Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.


## ERRETIRATUEN IRTEERA

San Joxepekoek Gernikara egun osoko irteera egingo dute ekainaren 16an. Izenematea: 943 76 30 09.

## GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 6  
CAMACHO. Oxirondo 4 ..... 943 76 11 74  
ZAPATUA, 7  
PUY. Barrenkalea 25 ..... 943 76 19 63  
DOMEKA, 8  
PUY. Barrenkalea 25 ..... 943 76 19 63  
ASTELEHENA, 9  
GUALLAR. San Antonio 5 ..... 943 76 11 05  
MARTITZENA, 10  
ESTELLA. Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63  
EGUAZTENA, 11  
MOZOS. San Pedro 4 ..... 943 76 12 15  
EGUENA, 12  
CAMACHO. Oxirondo 4 ..... 943 76 11 74

## ALKATEARENAGURRA/ Victoriano Gallastegi



**A**maierara iristen ari da legealdia. Ziur nago lau urte hauetan legealdi hau osatu duten zinegotzi guztiak Bergarako herriarendako onena egiten saiatu direla. Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut egin duten lanarengatik publikoaren aurrean eskerrak emateko.

2003. urteak Bergarako hiru ospetsurekin zerikusia duten hiru gertakari handien urteurrena dakar: Ignacio Araña Aumategiren jaiotzaren 350 urte (frai Jose); Koldo Eleizalde Breñosaren jaiotzaren 125 urte; eta Euskal Herriko "Txistularien Aitona" izan zen Boni Laskurain kuttunaren heriotzaren 25. urteurrena. Egitarau honetan pertsonaia horien historia eta ezaugarriak garatzen dira labor-labor. Udalak beharrezko tresnak jarri ditu martxan urte honetan zehar bakoitzaren inguruan ekitaldi batzuk ospatzeko.

Amaitezko, eta programa hau posible egiten duten guztiei eskerrak eman eta gero, agur berezi bat bidali nahi diet arrazoiren batengatik gurekin batera Pazko jai hauek ospatuko ez dituzten guztiei.

Eskerrik asko guztiei eta ondo pasa jaiak!

Zorionak!

Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea

## ETABARRUAN...

MENDEKOSTE JAIK 2002

Egitaraua	/4
Luar Na Lubre	/7
Barrakak	/8
Pazkoetako kamiseta	/11
"Guti", jaietako beteranoa	/12
Los Incansables, 25 urtez jaietan	/13
Dantzak	/14
Errekortadoreak	/15
Zezenketa	/16
Rocka	/19
Disko festa	/22
Dantzaldiak	/27
Txosnak	/28
Sukaldariak	/30
Antzerkia	/35
GOITB	/36
San Esteban	/38
Zorion agurrak	/41
'Kontuola'	/42
'Goibekokale'	/44
Erretratua	/46



Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi  
Aintzane Irizar  
Irati Agirreazaldegi

MAKETAZIOA  
Iñaki Iturbe  
PUBLIZITATEA  
Mireia Larranaga

LEGE-GORDAILUA  
55-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

EGITARRAUA

# JAIETAKO EGITARRAUA

## Egubakoitza 6

20:00 Jaiak hasiko dira etxafuego jaurtiketarekin eta BITORIANATXOren JAITSIERAekin.



BITORIANATXOREKIN HASIKO DA JAIJA.

20:00 Udal Musika Bandaren KALEJIRA, hiriguneko kaleak alaitzeko.

20:00 Matxiategin BARRAKAK irekiko dituzte.

20:30-21:30 Jardun euskara elkarteko TRIKITILARIEN KALEJIRA.

21:00 Bideberriko TXOSNAK irekiko dituzte.

22:30 Luar Na Lubre taldearen KONTZERTUA, Galiziako folk tradizioarekin, ganbera musikarekin eta Rosa Cedrónen ahotsarekin osatuta.

24:00 DISKO FESTA: Euskadi Gaztea irratia jaialdi ikuskizuna, Joseina Etxeberria DJarekin, San Martin plazan.

24:00 ROCK KONTZERTUA Bideberri: Niños Mutantes, Painful, Fevers eta Dixie 900 taldeak.

## Zapatua 7

09:00 XXIII. Haur eta Gazteen Plastika Sariketa. Beart taldeak antolatuta. Beart-en egoitzan (Bolu kalea 49).

10:00 DIANA, auzoak esnatu ondoren, San Martin plazan elkartuko dira. Bolutik, Udal Txistulari Banda. Oxirondotik, Kobok dultzaina jotzaileak. Labegaraietatik, Josu eta Jokin soinu jotzaileak.



UMEEK GOZATU, GURASOAK ZORATU.

Gero MIZPIRUALDERA BISITA egingo dute dultzaina jotzaileek eta txistulariek.

11:30 Elkarleen arteko SUKALDARITZA LEHIAKETA. Bakailaoa pil-pilean prestatuko dute elkarrekin San Martin plazan, trikitilariak alaituta.

13:00 XXIII. Haur eta Gazteen Plastika Sariketako sari banaketa. Beart artisten elkarrekin egoitzan (egoitza, Bolu kaleko 49 zenbakian dago).

16:00 GRAFITI ERAKUSTALDIA, Bideberri. 16:30 Compañía La Mascara taldearen *Jordi Carlitos* KALE ANTZERKIA Xabier Maria Munibe plazan.

17:45 BONBA JAPONIARRAK umeendako, San Martin plazan.

18:00 ERREKORTADOREEN Euskadiko IV. TXAPELKETA. Txapelketa horretan Nafarroako, Gipuzkoako, Zaragozako eta Bergarako bederatzi bikoteek hartuko dute parte.

18:30 ERRALDOIEN, KILIKIEN ETA BURUHANDIEN KONPARTSAREN KALEJIRA,

# “EGUZKI - ALDE” S.L.

## Zerrategia

Labegaraieta • Tel. 943 76 11 06 / 943 76 00 80

Ondo ibili jaietan!

# Bideluze

## ARROPA GARBITEGIA

AMILLAGA 26 POSTA KUTXA 82 BERGARA  
TEL.: 943 764 943 FAXA: 943 769 708

Laneko arropa  
Mantelak  
Mantak  
Edredoiak  
Alfonbrak  
Moketak  
Gortinak

Arropa  
konpontzen  
dugu

Bordatuak  
egiten  
ditugu

Ondo pasatu denok!

EGITARAUA



ERRALDOIEN ALARDEAN BURUHANDI ETA KILIKIAK ERE IBILIKO DIRA KALERIK KALE.

## Domeka 8

**08:00** SOKAMUTURRA San Martin plazan, Elgoibarko dultzaina jotzaileek alaituta. Gero, Elgoibarko dultzaina jotzaileen KALEJIRA, San Martin plazatik zezen-plazara.

**09:00** Lehen ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajea, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Ramon Maria Lili eta zezen-plaza. Segidan, ENBOLATUAK. Eta gero, Udal Txistulari Bandaren ALBORADA.

**10:00** TXIRRINDULARI LASTERKETA: 23 urtez azpikoendako eta elitekoendako 68. Mendekoste saria, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Irteera San Lorentzo auzotik.

**11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro elizan. Udal Korporazioak hartuko du parte, Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.

**11:30** Hamabost urtetik beherako bikoteendako 26. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETAko kanporaketak San Martin plazan. 12 bikote sailkatuko dira.

**12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoioian.

*Egitaraua:*  
*Lagartijilla.* Pasodoblea J. Martín  
*La Forza del Destino.* Obertura G. Verdi  
*Gero bat gaurdanik.* 2003ko Korrika B. Mendizabal  
*La Dolores.* Jota handia T. Bretón  
*Nostradamus.* Fantasia O. M. Schwarz  
*Take The A-Train.* Big banda B. Strayhorn

**13:00** Tuterako Jota Eskolako taldearen KANTALDIA herriko kaleetan.

**17:30** KALEJIRA, San Martin plazatik zezen-plazaraino. Parte hartuko dute: Zumarragako Musika Bandak, Elgoibarko

dultzaina jotzaileek eta mandaoek, agoaziltxoek, agintariek eta herriko zaleen koadrilak. Geldialdia Lasa zaharrear.

**17:30** Hamabost urtetik beherako bikoteendako 26. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETA San Martin plazan, Udal Txistulari Bandak eta trikitilariak lagunduta.

**18:00** ZEZEN FESTA, Salamancako López Chávezen ganaduekin, Betizu elkarteak antolatuta. Nobilleroak: Ekaitz Rodríguez erreteriarra eta Anton Osés nafarra. Burtzikaria: Igo Etxaniz *Kinttela* azpeitiarra. Gero, DULTZAINEROEK herriko kaleak alaituko dituzte.

**19:30** Trapu Zaharra antzerki taldeak *Elvis joan adi!!!* KALE ANTZERKIA egingo du Xabier Maria Munibe plazan.

**23:00** Joselu anaiekin ERROMERIA San Martin plazan.

## Astelehena 9

**08:30** KALEJIRA, Los Incansables txarangarekin, zezen-plazaraino.

**09:00** Bigarren ENTZIERROA. Ibilbidea:



CAMP DANTZALDIA ESPOLOIAN.

Udal Txistulari Bandak eta Lizarrako gaita jotzaileek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili, Ibargarai hiribidea, Fraiskozuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin plaza.

**19:00** MANIFESTAZIOA, Barandalla presoaren egoera salatu eta askatasuna eskatzeko.

**23:30** ROCK KONTZERTUAK Bideberrin: Cool jerks, RIP KC, Bumer eta Black sheeps taldeak.

**23:30** CAMP DANTZALDIA San Martin plazan: Nueva Etapa Orkestra.

Industriak  
**Azko**  **in**

Jai zorientsuak opa dizkizuegu bergarar guztioi!

Amillaga 43, San Lorentzo industria poligonoa. 109 posta kutxa Tel.: 943 76 10 52 Faxa: 943 76 98 20 Bergara




**Matxiategi**  
**Elektragintza**  
**S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN  
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

*Ondo ibili jaietan!*

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

## EGITARAUA



ASTELEHENEAN HAURREN EGUNA; BEREZIKI EURENDAKO EKITALDIAK IZANGO DITUZTE.

Gaspar jatetxea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurtzeta, Ramon Maria Lili eta zezen-plaza.

Segidan, ENBOLATUAK, Los Incansables txarangak alaituta.

**10:30** Ollagorra elkarteak antolatutako PLATER TIROKETA Goriako Irubide zelaian.

**11:30-13:30** Ipintza II-ko patioan umeendako JOLASPARKEA.

Ordu berean, Udal Musika Bandaren kalejira.

**12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoloian.

*Egitaraua:*

*Leitzako herriari.* Martxa

J. Ortega

*A Discovey Fantasi.* Suitea

B. Appermont

*Alma de Dios.* Zartzuelako aukeraketa

J. Serrano

*The Lion King.* Soinu banda

E. John-H. Zimmer

*Begarako Ereserkia*

A. Gz. Chirlaque.

**17:00-20:00** JOLASPARKEAren jarraipena

Ipintza II-ko patioan.

**18:00** Umeendako JOLASAK zezen-plazan, Los Incansables txarangak lagunduta.

Ondoren, Los Incansables txarangarekin

kalejira.

**22:30** ROCK KONTZERTUA Bideberrin:

Sorkun, Kokein, Eraso, Destruccion eta Goiko

rock taldeak.

**23:00** Tarantella orkestrarekin DANTZALDIA

Espoloian.

## Martitzena 10

**08:30** KALEJIRA, Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren bidetik zezen-plazaraino.

**09:00** Hirugarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurtzeta, Ramon Maria Lili eta zezen-plaza.

Segidan, ENBOLATUAK.

**11:00-20:00** Mendekosteetako Kartel Lehiaketan aurkeztutako lanen ERAKUSKETA udaletxeko arkupeetan.

**11:30** Egunean, kaleak alaituko dituzte Xafre eta Zaharra eta Josu eta Jokin bikote TRIKILARIEK eta Los Incansables txarangak.

**11:30-13:30** HERRI TRENA, Fraiskozuri plazatik.  
**12:30** HERRI KIROLAK ERAKUSTALDIA, San Martin plazan: Jose Antonio Gisasola Zelai eta Miren Urkiola harri-jasotzaileak; Fausto Mugertza eta Ugaitz Mugertza aizkolariak eta Joxe Lapazaran, lastoa bota, ingudea jaso eta abarrear.

**13:00** KALEJIRA, trikitilariak lagunduta, San Martin plazan hasi eta herriko kaleetan.

**14:30** HERRI BAZKARIA, Txosna batzordeak, Xamatx dantza taldeak eta Jardun elkarteak antolatuta.

**16:00** Bazkalondoan, JOKOAK eta Iraunkorra txarangaren emanaldia.


**17:00** PILOTA PARTIDUAK Udal Pilotalekuan: Etzaniz-Goñi II.a/Esain-Otxandorena; Titin III.a-Apeztegia/Olaizola I.a-Zearra eta Saralegi-Medina/Del Rey-Auxkin.

**17:00-20:00** HERRI TRENAREN bira, Fraiskozuri plazatik irtenda.

**18:00** ENBOLATUAK, koadrilendako, zezen-plazan, Los Incansables txarangak alaituta. Gero, KALEJIRA, Los Incansables txarangarekin.

**20:00-21:00 eta 22:30etik aurrera** DANTZALDIA Egan taldea San Martin plazan.

**24:00** BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.



PILOTARI PUNTAKOENAK ETORRIKO DIRA.

# Servimasa

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49 BERGARA

Ondo pasa jaiak!



## Cronicin

ESTALKETA GALBANIKOAK

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!

Amillaga 1, 8. pabilioia

283 posta kutxa

Bergara

Tel.: 943 76 54 44

Faxe: 943 76 57 27

KONTZERTUA

# Galiziako zatitxo bat gaur, egubakoitza, gure artean

Luar na Lubre talde ezagunak Galiziako doinuak ekarriko ditu gaur, egubakoitza, herrira

MONIKA BELASTEGI

Ikuskizun paregabea izango da gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan: Galiziar folk eta musika tradizionala Coruñatik etorri den Luar na Lubre taldearekin, hain justu.

**G**aur egun Galizian dagoen folk talde garrantzitsuenetakoa da Luar na Lubre. Izenak, gainera, Galiziako mugak gainditu ditu, Mike Oldfield musikari ezagunak taldearen musikan interesa erakutsi zuenetik. Orduetik hona sari asko irabazi dituzte, eszenatoki garrantzitsuetan jo dute eta urrezko bi disko lortu dituzte.

#### FOLKA ESPORTATZEN

Coruñan sortu zen Luar na Lubre taldea 1986. urtean. Eta Galiziako folk musika eta musika tradizionala dira taldearen oinarria; Galiziako erroak dituzten doinuak, azken baten. Izan ere, taldearen helburua da



Zortzi kidek osatzen dute Luar na Lubre taldea eta hamabi musika tresna jotzen dituzte.

Galizian berezko kulturak irautea, kanpoko eraginen gainera. Hala eta guztiz ere, ez dituzte kanpoko eragin horiek saihesten, euren sortze prozesuan integratu baizik.

**Galiziako folk musika eta musika tradizionala dira taldearen oinarria; Galiziako erroak dituzten doinuak, azken baten**

Luar na Lubrek jaialdi askotan hartu du parte: Galizian, Espainian eta Europan barrena. Hori horrela, Galiziako musika gehien esportatu duen taldea da. Zeregin horretan

Udal Pilotalekuan

**Egubakoitza  
22:30**

Aurrez erosi ezean, sarrerak leihatilan ere egongo dira salgai, 14 eurotan

asko lagundu die 1992. urtean Mike Oldfield musikariarekin kontzertua eman izanak. Eta, horrez gainera, Mike Oldfieldek *Tubular Bells III* diskoa aurkeztu zuenean, Luar na Lubre taldeko abeslari eta txelo jotzaile Rosa Cedronek hartu zuen parte aurkezpen emanaldi hartan.

Horrez gainera, sari garrantzitsuak jaso ditu talde galziarrak: beste batzuen artean, Galiziako Folk Musikako Talde Onenaren Ideal saria eta Luar saria.

#### ZORTZI KIDE, HAMABI MUSIKA TRESNA

Zortzi kidek osatzen dute Luar na Lubre taldea; honako hauek, hain justu ere: Rosa Cedron (ahotsa eta txelo), Xulio Varela (bouzoukia, ahotsa eta perkusioak), Bieito Romero (gaitak, akordeoia eta zanpoña), Eduardo Coma (biolina), Patxi Bermudez (*bodhrama*, danborra eta *djimbeka*), Pedro Valero (gitarra akustikoa), Xabier Ferreiro (perkusioko latinoak eta efektuak) eta Xan Cerqueiro (flautak).


DECOLETAJES

# BIOK

Preziosozko dekoletajea era guztietako materialetan

**ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!**

Amillaga 6 • 286 posta kutxa • 20570 BERGARA Gipuzkoa • Tel. 943 76 53 29 • Faxe 943 76 41 05



# Herran

#### ELEKTRIKAKO TRESNAK


Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3  
943 76 12 22

#### SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4  
943 76 37 53



UMEAK

# Umeen eta hain umeak ez direnen ilusioa: barrakak

Aurten 25 bat postu jarriko dituzte Matxiategin; gehienak joan den urteko berak

EDU MENDIBIL

Umeendako barrakak izaten dira jaietako gauza handiena. Gurasoei, berriz, buruhauste nahikoa ematen diete. Hala ere, zenbaitetan nagusiek pasatzen dute ondoen...

Aurtengo jaietan 25 postu jarriko dituzte Matxiategiko aparkalekuan. Besteak beste, Igela, Ohea deritzon feria, ohiko auto-txo-keak, umeendako trena, *Scalextrix*-a, tiro-postuak, karrusela, txiki-parkea, tonbolak, bingoa... Horrez gain, taberna bat, txurroak saltzeko postuak eta gozoki saltzaileak egongo dira. Juan Jose Seisdedos Euskadiko Ferianteen Elkarteko ordezkariaren arabera, Bergarara etorriko diren postu gehienak iaz ere egon ziren Pazkoetan. Seisdedos-ek zera adierazi digu: "Bergara plaza ona da. Jende asko ibiltzen da, nahiz eta betiko moduan eguraldiaren mende egoten garen.



Urtero moduan, txikienek ondo pasatzeko aukera izango dute Matxiategiko barraketan.

ANDER GILENEA

**Barraken prezioa 1,50 euro izango da; astelehenean eta eguaztenean, berriz, prezio berezia izango dute: 0,75 euro**


**Umeendako jolasparkea jarriko dute astelehenean Ipintza II-ko patioan, 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara**

Eguraldiak lagunduz gero, gustura egoten gara Bergarara". Barraken prezioa fin- katzeko orduan, udalbat- zaren partetik borondate ona egon dela adierazi digu Seisdedos-ek. Barraken pre- zioa 1,50 eurokoa izango da eta astelehenean prezio berezia edukiko dute 10:00etatik 13:00etara bitar- tean: 0,75 euro. Eguaztene- an egun osoz ere merkeago ibili ahal izango da barra- ketan.

#### JOLASPARKEA

Bestalde, astelehenean txi- kienendako jolasparkea jarriko dute Ipintza II Ins- titutuko patioan: goizetik, 11:30etik 13:30era, eta arra- tsaldez, 17:00etatik 20:00eta- ra. Jolasparke horretan hainbat jolas egongo dira: kart autoak, *superjumper*- ak eta gaztelu puzgarriak, besteak beste.


Gaztetxoek txekorrek- in jolasteko aukera ere izan- go dute astelehenean zezen- plazan, 18:00etan. Pottokak, txekor txikiak eta beste hainbat animalia aterako dituzte, eta musika ez da falta izango.



eusko  
alkartasuna

**Mendekoste  
jai zoriontsuak  
guztioi!**

Barrenkalea 18 Bergara 943 76 26 81



eusko  
alkartasuna

**IAM**

Sarpen eta  
hari bidezko  
elektrohigadura

**IAMMEK**

Abiadura handiko  
mekanizatuak

**IAMCUT**

Ur-zorrotada bidezko  
mozketak

GRUPO

**IAM**

**Zorionak!**

Amillaga 10. PK 175 BERGARA  
Tel.: 943 76 91 00 Faxa: 943 76 29 49

[www.iam.es](http://www.iam.es)





## AGIRRE HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak,  
Gotzone Arkarazo higienista  
eta Silvia Romero harreragilea

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. BERGARA  
943 76 00 23  
09:00-13:00 eta 17:00-21:00



RPS: 139/01

### Ondo pasau Pazkuak!



## CONSTRUCCIONES SOBRINO

Construcciones A. Sobrino SAK  
Bergaran Deba ibaiko ur zikinak batzeko hodi  
biltzailearen III. faseko lanak hasiko ditu laster.  
Hori dela eta, lan horien eraginez sor daitezkeen  
eragozpenengatik aldeztu aurretik  
barkamena eskatzen dizuegu.

CONSTRUCCIONES SOBRINO Ibargarai 43. Tel.: 943 76 90 02. Faxa: 943 76 54 62

Jai zoriontsuak herritar guztioi

J A N T Z I D E N D A

# LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



E T X E A P A I N K E T A

Mizpildi 8  
943 76 12 32  
BERGARA

Matxiategi 1  
943 76 72 73  
BERGARA



## MIZPILDI



## OKINDEGIA

Jai zoriontsuak guztioi!

**ELKARRIZKETA EIDER CARRASCO JARDUNEN KAMISETARAKO MARRAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA**

# “Lehen barraka gehiago eta hobeak ekartzen zituzten”

MONIKA BELASTEGI

**Eider Carrascok 13 urte ditu, eta hura da Jardunek antolatuta-ko Pazkoetako Kamisetarako Marrazki Lehiaketaren irabazlea. Mendekoste jaiak oso gustuko ditu; batez ere, plazan dantza egitea, barrakak eta lagunekin ibiltzea.**

**Zergatik erabaki zenuen lehiaketara aurkeztea?**

Ikastolan plastikako ikasgaiaren barruan egiteko esan zigun irakasleak. Kontua da Imanol Cordovilla, Pazkoetako Kartel Lehiaketa irabazi duena, gure gelakoa dela. Hori horrela, irakasleak Kamiseta Lehiaketan parte hartzera animatu gintuen. Eta ni aurkeztu egin nintzen.

**Zer adierazten du marrazkiak?**

Dantzari bikote bat, sueltoan dantza egiten jaie-tan.

**Zelan bururatu zitzaizun marrazki hori?**

Jaiak irudikatze-ko, mugimenduan zeuden figur-etan pentsatu nuen. Horre-la, dantzan diharduen biko-

te bat egitea pentsatu nuen, baina irudi pixka bat abstraktuak. Bestetik, lehiaketaren baldintzetan jar-tzen zuenez Jardun elkar-tearen logotipoa eraman behar zuela marrazkiak, bada, dantzari bakoitzaren burua logotipoa izatea era-baki nuen.

**Pozik egongo zara.**

Bai, pozik nago. Ez nuen irabazterik espero. Pazko-etako Kartel Lehiaketara ere aurkeztu nintzen; orduan ere bi dantzari egin nituen, baina oraingoaren ezberdinak.

**Aspalditik duzu mar-gorako zaletasuna?**

Txikitatik margotzen dut, baina ez pentsa oso esku ona dudarik.

**Sari gisa afaria jaso duzu bi lagunendako. Erabaki duzu norekin afal-du?**

Oraindik ez.

**Kamiseta jantzita era-mango duzu jaietan?**

Egunen batean bai, bai-na ez egunero. Eta zaila ikusten dut koadrilako guz-tiek eramatea.

**Zer egingo duzu jaietan?**

Lagunekin elkartu, dan-tza egin, barraketan ibili eta kaleko giroa ikusi. Barra-kak lehen gehiago gusta-



MONIKA BELASTEGI

tzen zitzaizkidan. Gaur egun ekartzen dituztenak ez dira lehengoak bezain onak, eta gainera gutxi egoten dira. Dantza egitea ere as-ko gustatzen zait. Batez ere

plazan egiten dugu dantza, baina batzuetan, gure adi-neko jendea baldin badago, Ariznoa tabernan ere bai. Gure adinekorik ez badago, lotsa ematen digu sartzea.

**Zer gustatzen zaizu gehien jaietatik?**

Eskolarik ez dagoela; eta lagunekin egotea.

**Ze ordura arte gera-tuko zara kalean?**

**“Pozik nago. Ez nuen irabazterik espero; txikitatik gustatu izan zait margotzea, baina ez dut oso esku onik”**

**“Jaietan dantza egitea asko gustatzen zait; batez ere plazan, baina gure adinekorik baldin badago, Ariznoan ere bai”**

Oraindik ez diet gura-soei galdetu. Baina nor-malean lagunak bueltatzen diren orduan bueltatzeko esaten didate, etxera baka-rrik ez joateko.

## J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Odontologia orokorra

Implanteak

Ortodontzia

Ahoko zirurgia

Fraiskoziuri 5A, I-D. BERGARA

**Ondo ibili Mendekoste jaietan!**

Tf. 943 76 56 88

## Agorrosin, S.L.

DOITASUNEZKO MOLDEEN ETA METAL GOGORREZKO TRESNEN FABRIKAZIOA

San Lorenzo industri poligonoa - Haitz Iturri 6, 279 posta kutxa  
20570 BERGARA

Tel.: 943 76 29 63

Faxa: 943 76 72 84

Posta elektronikoa: Agorrosin@agorrosin.com

**ZORIONAK  
BERGARAR  
GUZTIOI!**

**Matriceria  
Agorrosin**



LOS INCANSABLES

# Los Incansables txaranga: 25 urte Pazkoetara etortzen

Joaquin Ortega "Canario" saxofoi jotzailea hasieratik dago taldean, eta Pazkoetan egon da azken 25 urteotan

EDU MENDIBIL

Azken 25 urteotan moduan, Los Incansables txarangak giroa alaitzen jardungo du jaietan. Txarangako kide Joaquin Ortega Canario-k ez du hutsik egin 1978a ezkerero.

Nork ez ditu ezagutzen? Rolling-en moduko talde dinosaurua da Los Incansables, azken hiru hamarkadetan jairik jai ibili dena.

1971n sortu zen, eta ordutik hona Euskal Herriko jai guztiak alaitu ditu. Joaquin Ortega Canario hasieratik dago taldean; ezizena aitari zor dio. Hernaniarra dugu, taldeko saxofoi jotzaileetako bat. Aurten Incansablesekin 33. denboraldia beteko du: "Neguan entseatzeko jarduten dugu eta udaberri parterako herriz herri ibiltzeko irrikaz egoten gara. Hori bai, irailerako lehertuta bukatzen dugu, jaien denboraldia oso gogorra da-eta".



Los Incansables txaranga jaietako ekitaldiak alaitzen jardungo du astelehenean eta martitzenean.

Nortasun agirian, lanbidearen lekuan, musikaria edo parrandazalea jartzen duen galdetu diogu Canario-ri: "Hasierako urteetan parranda gehiago egiten genituen. Orain, berriz, goiz

**"Lagun handiak ditugu Bergaran, eta oso gustura ibiltzen gara Pazkoetan, giro ederra dago" Joaquin Ortega, 'Canario'**

jaiki beharra daukagu, hainbat tokitan zezenak edo bestelako ekitaldiak goizez alaitzeko eskatzen digute-eta. Joaten garen leku guztietan gure onena ematen ahalegintzen gara,

eta egunero ez dago ordu txikietan ibiltzerik. Pentsa, abuzturako egun guztiak kontratatuta dauzkagu, eta ezinezkoa izango litzateke beti parranda egitea. Baina ez dut esango fraideak garenik ere".

### 1978A EZKERO BERGARAN

Bergarara lehen aldiz 1978an etorri ziren eta ordutik hona ez dute hutsik egin Pazkoetan: "Miguel Angel Larrañagaren andrea, Maitte Frias, tolosarra da, eta hango jaietan ikusi gintuzten. Bergarara etorri behar genuela esaten ziguten behin eta berriz. Hasierako urteetan Sagarpen bazkalitzen genuen eta gero Antxonin, urte askoan. Lagun handiak ditugu Bergaran, eta oso gustura ibiltzen gara, oso giro polita egoten da-eta. San Martzialetan ere behin baino gehiagotan egon gara". Jaietan aditua izanik, jai onenak zeintzuk diren esateko ez du birritan pentsatu: "Hernaniarra izanik, San Juanak. Tolosako Inauteriak ere izugarri gustuko ditut. Edozelan ere, jai guztiek dute xarma".




**EYSKO S.A.**

Zorionak!

Makina-erremintako laguntzailea • Doitasunezko multzoak

Amillaga 7 · 147 pk · 943 76 21 41 / 76 46 05 · Bergara



1942az gero

San Juan auzoa  
BERGARA  
943 76 35 44 Faxa: 943 76 51 39

Zorionak bergararroi!



## DANTZA

# Dantza sueltoko gazte onenak lehian domekan

Hogeita seigarren aldiz jokatuko dute aurten 15 urtez azpikoendako Euskadiko Dantza Suelto Txapelketa

MONIKA BELASTEGI

Hamasei taldek hartuko dute parte aurtengo lehiaketan, eta txapelketa modua aldatu egin dute. Goizeko eta arratsaldeko saioetako botoak batu, eta hala erabakiko dute irabazlea.

**O**rain arte beste modu baten erabakitzen zuten bikote irabazlea: goizean bikote guztien artean kanporaketa egiten zuten, eta hor erabakitzen zen arratsaldeko txapelketara joango ziren taldeak. Aurten, berriz, ez da kanporaketa egongo, antolatzaileek, Abarka Dantza Elkarteko kideek, esan dutenez: "16 taldeek goizez eta arratsaldez jardungo dute eta bi saioetako emaitzak batu ondoren erabakiko da bikote irabazlea".

Parte hartuko duten 16 talde horietatik lau bergararrak dira eta beste bat elgetarra. Gainerakoak Gipuzkoatik eta Nafarroatik etorriko dira.



Jantzi egokienarendako saria ere banatuko dute; jantzi dotoreena daraman bikoteak jasoko du.

**FANDANGO ETA ARIN-ARINA**  
Goizeko saioa hamaika eta erdietan hasiko da, San Martin plazan, eta arratsaldekoa, berriz, bost eta erdietan izango da, leku berean. Bikoteek egin beha-

rreko lanari dagokionez, goizean fandangoa eta arin-arina egingo dituzte Bergarako Udal Txistulari Bandak lagunduta. Arratsaldean ere fandangoa eta arin-arina egingo dituzte,

baina trikitilarien laguntzarekin. Trikitilariak Xabier Alberdi *Xabale* eta Lurdes Alkorta azpeitiarrak izango dira.


Epaimean kasuan, Euskal Dantzarien

## Parte-hartzaileak

Iruñe Gurrutxaga-Andoni Telleria / Azpeitia  
Irantzu Larrañaga-Iraitz Olariaga / Azpeitia-Azkoitia  
Amaia Bolinaga-Aritz Arrillaga / Bergara  
Izarne Medina-Jon Arrillaga / Bergara  
Ainara Unanue-Asier Urbizu / Azpeitia  
Estibaliz Aranguren-Jon Iburguren / Azpeitia  
Nagore Larrañaga-Iñigo Larrañaga / Azpeitia  
Hiart Bolinaga-Andoni Elorza / Elgeta  
Naikari Vizuite-Asier Marco / Lezo  
Leire Aranburu-Asier Badiola / Lezo  
Garazi Lekuona-Unai Santos / Lezo  
Amaia Garitano-Aitor Miner / Bergara  
Uxue Olaziregi-Jon Aranzabal / Bergara  
Ainhoa Besada-Endika Plazaola / Pasaia-Zumarraga  
Aitziber Amantegi-Aimar Abad / Urnieta-Hernani  
Amaia Enerreteaga-Markel Rodríguez/ Lesaka

Biltzarrak izendatutako lau kidek osatuko dute eta bikote irabazleak honako saria jasoko du: Udalak emandako trofeoa, txapela, zapia eta 145 euro; bigarren bikoteak trofeoa eta 130 euro

jasoko ditu; hirugarrenak, trofeoa eta 120 euro; laugarrenak, trofeoa eta 110 euro; eta bosgarrenak, berriz, trofeoa eta 100 euro. Gainerako bikoteek trofeoa eta 80 euro jasoko dituzte.



**LASA**  
*Jatetxea*

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 943 76 10 55 Faxe: 943 76 20 29

Jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu



**"la Caixa"**

Fraiskozuri plaza 7. Telefonoa: 943 76 41 16  
BERGARA

ERREKORTADOREAK

# Bederatzi bikote bigantxen aurrean zapatuan

Iker Agirre, Unai Arana, David Maestre eta Mikel Uribesalgo, Errekortadoreen Txapelketan

EDU MENDIBIL

Euskadiko Errekortadoreen Txapelketa jokatu da zapatuan Bergaran. Nafarroako, Zaragozako eta Gipuzkoako errekkortadoreek jardungo dute lehian.

Laugarren urtez, Euskadiko Errekortadoreen Txapelketa jokatu da Bergaran. Aurreko aldietan moduan, txapelketa bikoteka jokatu da, eta bederatzi bikotek hartuko dute parte biharko saioan. Hain zuzen ere, Nafarroako, Zaragozako eta

Gipuzkoako bikoteak irten-go dira zezen-plazara. Horien artean lau bergarar egongo dira: Iker Agirrek eta Unai Aranak bikotea osatuko dute, Mikel Uribesalgok Blas Cruz arrasatearrarekin batera jardungo du eta David Maestrek, berriz, lehengusu Emilio Modroñorekin.

Bikote bakoitzak lau minutuko tartea izango du: hala, lehenbiziko minutuan bigantxei errekkortateak egiten ahaleginduko dira eta hurrengo hiru minutuetan, berriz, bigantxen adarretan ahalik eta uzta gehien sartzen jardungo dute. Bikote irabazleak 800 euro eskuratuko ditu eta errekkortate



ANDER GILENEA

Errekortateak egiteko minutu bat eta uztaiak jartzeko beste hiru minutu izango dituzte errekkortadoreek.

## Bigantxen aurrean zenbat denbora geldo egoten diren eta errekkortatearen ikusgarritasuna baloratzen ditu epaimahaiak

onena egiten duenak, berriz, 200 euroko saria izango du.

Errekortate onena aukeratzeko epaimahaia Iñaki Ganuza nafarrak eta Juanjo Arrieta, Juan Luis Biku-

ña eta Iñigo Almortza bergararrek osatuko dute. Iñigo Almortzak zera adierazi digu: "Errekortate onena zein den erabakitze orduan, alde batetik, errekkortate bigantxaren

aurrean zenbat denbora geldo egoten den eta, bestetik, errekkortate ikusgarria izatea kontuan hartzen dugu. Bigantxen gaintetik salto egitea, errekkortate bizkarretik egitea edo bestelako errekkortate politak ikusten dira horrelako txapelketetan. Hasiera baten bikote nafarrak dira faboritoak, eta zaragozarrak ere hortxe-hortxe ibiliko dira, baina bergararrak ere ez dira atzean geratuko. Lan polita egingo dute, seguru. Maia-

Zezen-plazan

**Zapatua**  
**18:00**

Sarrerak:  
nagusienak, 7 euro;  
14 urtetik  
beherakoenak, 4 euro.

tzaren 24an Elgoibarren egon ginen eta Blas Cruzek sustoa hartu zuen arren, ikusleak pozik geratu ziren errekkortadore bergararren lanarekin".

Joan den urtean sariarik jaso ez zuten arren, 2001ean errekkortate artistikoari zegokion saria eman zuen David Maestrek eta Mikel Uribesalgok eta Unai Aranak uztaien proba irabazi zuten.

### EUSKADIKO TXAPELKETA

Esan bezala, Euskadiko Txapelketa izango da zapatuko. Iñigo Almortzak Bergarara etorri nahi zuten errekkortadore askoren eskaerak izan dituztela diosku: "Lodosa eta Kalagorri aldeko errekkortadoreek hona etortzeko interes handia zuten, baina ikusizuna gehiegi ez luzatzeko partaidetza mugatu egin behar izan dugu. Datorren urtean Euskadiko Txapelketa ligaxka sistema bidez jokatzeko aukera aztertzen dihardugu, eta, besteak beste, Elgoibarren, Arrasaten, Tolosan eta Bergaran egingo ditugu errekkortadoreen saioak".



## ALURA, S.L.



ZORIONAK  
DENOI!

- ▶ MEKANIZAZIORAKO ALTZAIRUA
- ▶ ALTZAIRU HERDOILGAITZA
- ▶ TORLOJU HERDOILGAITZA
- ▶ ESTANPAZIORAKO ALTZAIRU HERDOILGAITZA
- ▶ SOLDADURA HERDOILGAITZA
- ▶ ALUMINIOA

HAITZ ITURRI 6 (P. K. 267)  
20570 BERGARA  
Gipuzkoa

Tel. 943 76 02 50  
Faxa. 943 76 03 15  
e-maila: [alura@logiccontrol.es](mailto:alura@logiccontrol.es)



# BERGARA

## Kafea-Pentsioa

EGUNERO GOIZEKO 7etatik ZABALIK  
Bidekurutzeta 34, BERGARA 943 76 47 23



Ondo pasau  
Pazkoak!

ELKARRIZKETA EKAITZ RODRÍGUEZ TOREATZAILEA

# “Iaz izugarri gozatu nuen Bergaran zegoen giroarekin”

EDU MENDIBIL

**Ekaitz Rodríguez toreatzaile errenteriarra Bergaran egongo da domekan. Iazko zezenketan ordezkoa izan genuen, eta aurten Zezenzaleak taldeak beste aukera bat eman nahi izan dio. Ilusio handiarekin datorrela diosku.**

**Noiz egin zenuen debuta nobillero gisa?**

Legez ezin da nobillero izan 16 urtera arte, eta Mugron-en (Frantzia) egin nuen debuta iazko apirilean. Ordutik hona 25 zezenketa inguru egin ditut, eta gustura nabil, dezente hobetzea lortu dut-eta, batez ere teknika aldetik.

**Nondik datorkizu zaletasuna?**

Ez dakit, betidanik izan dut toreatzaile izateko ilusioa, txikitatik. Etxean ez dut hori jaso, nahiz eta aitona zezenketazalea den. Barruan daramadan gauza da, beharbada txikitik grabatutako irudiren batetik-edo...

**Zaila da toreatzaile izatea Euskal Herrian?**

Ez pentsa. Toretzaile gutxi gara, eta norbait irtean denean jendeak dena ematen du hari laguntzeko. Gutxi izatea abantaila izaten da askotan, beste toki batzuetan baino laguntza handiagoa izaten dugu-eta.

**Zelan hasi zinen?**

Donostiako La Paz auzoko Zezen Eskolan hasi nintzen; 11-12 urterekin han eman nituen lehen urratsak. Iaz beste jauzi bat ematea beharrezkoa zela ikusi nuen, eta joan zen ekaina ezker Madrilgo Zezen Eskolan dihardut. Urte osoa ematen dut han.

## Zekenketa domekan

**Ekaitz Rodríguez eta Javier Antón nafarrak López Chaves ganadutegiko bina txekor txuliatuko dituzte domekan, 18:00etan. Daniel Cuevas izango da ordezkoa eta Igor Etxaniz burzikari azpeitiarrak ere txekor bat izango du aurrean. Sarrerak Ganbara eta Canalejas tabernetan edo kultura etxean daude salgai.**

**Lagunek zer esaten dizute?**

Ohituta daude. Badakite txikitatik nire pasioa hau dela, eta asko laguntzen didate. Domekan Bergaran egongo dira.

**Toretzaile moduan, zer lortu nahi zenuke?**

Toretaketako figura izatea. Asmo horrekin joan nintzen Madrilera.

**Zelako toreatzailea zara?**

Gauzak ondo eta poliki egitea dut gustuko. Ez naiz belauniko-eta jartzen den horietakoa. Lan txukuna egiten eta dotore toreatzen ahalegintzen naiz.

**Eta Bergaran zer lortzea espero duzu?**

Jendeari ikuskizun polita eskaintzea eta egindako lanarekin ni neu gustura geratzea, besterik ez.

**Bergarako zezenketa ezagutzen duzu...**

Bai, iaz egon nintzen. Ordezko eraman ninduten eta izan nuen txekor bat txuliatzeko aukera. Jendea oso ondo portatu zen. Txekor-ekin lan ona egin nuen, baina hiltzeko orduan ez nuen zorterik izan eta *pin-txatu* egin nuen. Hala ere, izugarri gozatu nuen giroarekin. Ea domekan gauzak ondo irteten zaizkidan.



*Ondo ibili Parkoetan!*

- Nissan markako autoak, kamioiak eta furgonetak.
- Bigarren eskuko autoak
- Zero kilometroko autoak eta inportaziokoak.

\*...eta orain Bergaran lagunarteko bidaietarako, sagardotegietara joateko, ezkontzetarako, aste bukaerako txangoetarako...

**gidaririk gabeko ibilgaiuen alokairua**

**NISSAN**

INÍGO ALMORZA  
Salmenta arduraduna  
Poltsikoko Tel.: 656 78 12 04

San Lorenzo Ind. Pol. • Amillaga 22 • BERGARA  
Tel.: 943 76 17 35 • Erakusketako Tel.: 943 76 51 35

**T. Blanco**

- 26 urte zuen zerbitzura.
- Autoak eta kamioiak konpontzeko tailerra.
- **BRIDGESTONE** zerbitzu ofiziala.



# BOLU SUKALDEAK



Zorionak denoi!

2000 eguneko garantia.  
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02

# ELKAR ELEKTRAGINTZA


ZURE  
ZERBITZURA!!

## Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**



# IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32



JATETXEA



TABERNA

Eguneko menua • Plater konbinatuak  
Kintadak • Bataioak eta jaunartzeak

Fraiskozuri 7. Bergara. 943 76 20 40.

# ANTXONI

Ospatu Pazkoak gurean!

ROCK ERO

# Rock eskaintza zabala txosnen gunean, Bideberrin

Bideberrin eta gaztetxean

**Egubakoitzean, zapatuan eta astelehenean**

Estilo guztietako musika doan

Egubakoitzean, zapatuan eta astelehenean, egunean lau rock talde arituko dira Bideberrin, txosnen gunean; azken urteotan moduan punta-puntako taldeak izango dira, rock zaleen gozamenerako. / E.M./ M.B.

## 6 egubakoitza

**E**gubakoitz gauerdian hasiko dira Bideberriko guneko rock kontzertuak. Egubakoitzean Niños Mutantes, Painful, Fevers eta Dixie 900 taldeek egingo dute emanaldia.

**NIÑOS MUTANTES**  
Granadan sortu zen 1994. urtean. Garai hartan hiru kideekin ekin zioten: Nani Castañeda (bateria), Miguel Haro (baxua eta koroak) eta Juan Alberto Martínez (gitarra eta ahotsa), baina berehala gehitu zitzaizkien laugarrena, Juan Alberto. Orduan, euren kantuak egingen hasi ziren eta bost make-ta kaleratu zituzten. Pop-

aren barruan mugitzen da euren musika, baina, betiere, azken urteotan alternatibotzat jo izan diren neurgarriekin bat eginez. Dena dela, bada zerbait gainerako indie taldeetatik bereizten dituena: gaztelaniaz abesten dutela, hain justu. Hitzak asko zaintzen dituzte eta emozioak islatzen saiatzen dira. Honako taldeen eragina izan dute: Beatles, David Bowie eta Velvet Underground, besteak beste.

**PAINFUL**  
Urretxu eta Zumarragako bost lagunek osatzen dute Painful: Sonia (ahotsa), Tito (gitarra), Borja (baxua), Joan (gitarra) eta Xabi (bateria). Radiogram izenarekin jotzen zuten lehen, Sonia *fitxatu* aurretik. Power-rock estilora jorratzen dute eta, besteak beste, Dover eta Mallory Knox taldeen ukitua dutela diote hainbat musika adituk.

**FEVERS**  
Brian Hermosillo (gitarra), Gavin May (baxua eta aho-

tsa) eta Travis Ramin (bateria) hirukotea dugu Fevers. Minnesota eta California artean bizi dira eta *Gaan daar waar de meisjes zijn* (Alien snatch! Records, 2002) izenburuko diskoarekin oso kritika onak jaso zituzten. Power-pop estilorekin jarraitzaileak, Ramones, Kinks, Barracudas, Flamin' Groovies, Chuck Berry edo Easybeats taldearen eragina nabaria da euren kantuetan. Zuzeneko emanaldietan sekulako indarra duen taldea, Europan biran ditugu eta Bergaran parada egingo dute gaur.

**DIXIE 900**  
Lehen Requiem izena zuen talde bergararra: Ivan (bateria), Ciru (baxua), Jose (gitarra), Bernar (gitarra), Martin (abeslaria eta teklatura) eta Vanessa (koroak). 1990ean sortutako taldea. Hasieran punk-rockaren eta estilo ilunagoaren arteko nahasketa egiten zuten. Besteak beste, autokontsumoa eta natura jorratu izan dituzte kantuetan.



Fevers talde estatubatuarrak power-pop estilora jorratzen du.

## PASCUAL TELEKOMUNIKAZIOAK

Arrasate 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.



Liderrak  
telefonía mobilean



Banataile ofiziala



Ibargarai 5 BERGARA  
943 77 70 14 Faxa: 943 77 70 16  
bergara@pascualalzuri.com



Espoloia 4, BERGARA  
943 76 11 68


### MARKOGINTZA

Koadroak / Argazkiak / Gurutze puntuzko irudiak / Ispiluak  
Tailerra

### PINTURA MATERIALA

Olio-pinturak  
Laminak

### ARTISAUTZA



## ROCK ERO

7  
zapatua

Zapatuan, 22:30ean hasita, Cool Jerks, RIP KC, Bummer eta Black Sheeps taldeak izango dira Bideberrin.

## COOL JERKS

Oblivians eta Neckbones taldeen zatiketarik sortutako taldea. Dave Boyer

(gitarra), Forrest Hewes (bateria), Jack Yarber (gitarra) eta Scott Rogers (baxua) laukoteak osatzen du Cool Jerks. Disko bakarra kaleratu dute orain arte, *Cleaned a lot of plates in Memphis* (Sympathy for the records industry, 2002). Ameriketako Estatu Batuetako hegoaldeko musikaren tradizioa ondo baino hobeto ezagutzen dute eta blues, rock, soul eta rockabilly estiloak jorratzen dituzte. Kritikaren arabera, euren kantu freskoetan musika aniztasuna eta sentsibiltatea dira ezaugarri nabarmenenak. Memphisko bluesaren doinuak eta rock kantu dotoreak Cool Jerks taldearen eskutik zapatuan Bergaran.

## RIP KC

Orduan 12 urte zituzten gaztetxo batzuek sortu zuten Rip KC 1994an, Vallecasen. Orduetik hona Estatu osoan egin dituzte emanaldiak. Punk azkarra egiten zuten hasieran eta 1997an euren lehenbiziko lana kaleratu zuten, *RIP KC* (Potencial hardcore), eta 2.000 kopia saldu zituzten. Handik hiru urtera Speed disketxe frantziarrarekin *8000 rpm* izenburuko lana plazaratu zuten. MC5, Motorhead, Hellcopters eta Supersuckers taldeen eragina antzematen da haien kantuetan. 2001ean *The battle against inner spirits* (Punch records) diskoa kaleratu zuten, Bilboko Chocablock estudioetan grabatutakoa.

Aldizkari espezializatuek euren azken lanaren (*The truth is out there*, Lengua Armada Producciones, 2002) kalitatea goraiatu dute. Festimad-en kontzertu bikaina eskaini zuten, eta zuzenean duten indarra erakutsi zuten.

## BUMMER

Aurretik beste talde batzuetan ibilitako lau lagunek sortu zuten Bummer 1999an. Etiketak gustuko ez dituzten arren, powerpop estiloan kokatu izan dute taldea musika adituek. Besteak beste, T-Rex, Slade, Sweet eta Bowieren jarraitzaile sutsuak direla aitortu dute. Aurtengo urtarrilean Rip KC taldearekin batera Granadan jo zuten eta hango kritikaren arabera, aspaldian Estatuko talde batek eskaintzen zuen saio bikainetakoa izan zen Bummer-ena. Hard eta punk estiloen artean kokatzen diren kantuak egiten dituzte eta zuzeneko emanaldietan ez dira falta *Chaman boogie*, *The innocent*, *Can't do that* eta *Sympathy for the junkie* ezagunak.

## BLACK SHEEPS

Bergarako talde horrek bere lagun eta jarraitzaileen artean jotzeko aukera izango du zapatuan. Aritz (bateria eta ahotsa), Mikel (gitarra), Julen (gitarra) eta Joseba (baxua eta ahotsa) dira Black Sheeps, ardi beltzak. Euren bizitzan musika ezinbestekoa dela



Bummer taldea.



ARTXIBOA

Cool Jerks taldeak *Cleaned a lot of plates in Memphis* diskoko kantak eskainiko ditu Bergaran.

diote, euren ametsak betetzeko bide bat eskaintzen die-eta. Rock-and-rola egiten dute eta, besteak beste, ondoko talde hauen eragina izan dute: Dictators, Iggy Pop, Cool Panic eta Rolling Stones. Ingelesez kantatzen dute. Kantuak egiterako orduan musikari zein hitzei

garrantzi handia ematen diete. *Astindu* fantzineak kaleratutako CDra *Straight to end* izenburuko kantua grabatu zuten. Beste talde batzuen bertsioak ere jotzen dituzte, Thin Lizzy, Radio Birdman, Stogies, AC DC edo Sin City taldeenak, hain zuzen ere.

NINIKA

Jai zoriontsuak  
izan ditzazuela denok!

LOREAK MUNDU  
OSOAN

INTERFLORA

loradenda

Jaiotze-ospakizunak, ezkontzetako eliza  
eta jatetxea... dena apainduko dizugu!

Ramon Maria Lili 8. Tf. 943 76 10 01



...behar duzu



onena

telefonian

berri-berriena

informatikan

eta orain...zerbitzu teknikoak



Ibargarai Hiribidea 20  
20570 Bergara  
Tel. 943 769 458

Pcphone21

Euskaltel-en banatzaile ofiziala

Euskaltel

ROCK ERO

9

astelehena



Kokein taldearen musikak intentsitatearen sokatik tira egin arren, soinu lasaiek ere oinarri sendoa dute.

**A**stelehena euskal musika taldeen eguna izango da Bideberrin. Sorkun, Kokein eta Eraso etorriko dira. Horrez gain, Bergarako beste bi taldek ere jardungo dute: Destruccion eta Goiko rock taldeek, hain justu. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira.

**SORKUN**  
Musikan bataioa 1995ean izan zuen Kashbad taldearen estreinako diskoarekin. Gero, eta Kashbad-ekin hiru disko egin ondoren, hainbat talderekin ere kolaboratu du. Horren ondoren, bakarkako bideari ekin zion eta iaz *Onna* izeneko lana kaleratu zuen. Rockak betetzen ditu diskoaren zoko guztiak, rocka modu irekienean ulertuta. Dena dela, ez da estilo itxien lagun, eta kantuak nabarduraz jantzita daude.

**KOKEIN**  
Eibarko harrobiak emandako azken emaitza da. Iturri berrietatik eta klasikoetatik edaten du Kokein-

ek, Pearl Jam eta Incubus taldeetatik, esate baterako. Talde gaztea da, baina lau kideek beste hainbat taldetan ere jardun dute. Bestalde, intentsitatearen sokatik tira egiten duten arren, soinu eta giro lasaiek ere oinarri finkoa dute talde eibartarren musikan. Bestetik, Zalao abeslariaren ahots partikularrak gaur egungo musika garai-kideena transmititzen du. Taldearen izen bera daraman diskoa dute kalean.

**ERASO**  
Zarautzen 1996. urtean sortu eta berehala *Guztiaren arabera* maketa grabatu zuten. Beste hiru ere etorri-

ziren, eta 1999an, lehen diskoa, *Erantzunik gabe*. Handik bi urtera, 2001. urtean, bigarrena, *Oraina eta Geroa*, lehengoa baino heldu eta landuagoa. Eurek esandakoaren arabera, indarra eta sentimenduak islatzen saiatu dira bigarren lanean, eta horiek dira diskoaren osagarri nagusiak.

**DESTRUCCION**  
Gaur egun lokalik ez duten arren, entseatzeko gogorik ez zaie falta. Orain dela bi urte koadrilako lau lagun elkartu eta gustuko zuten musika egiteko -punk-oi!-taldea osatzea erabaki zuten. Instrumentu merkeak erosi eta musikaz

askorik ez jakin arren, gogotsu ekin zioten. Egin zituzten lehenengo abestiak RIP, Eskorbuto eta antzerako taldeen bertsiok izan ziren. Gero, erreperitorioa zabaldu eta Business, Sham 69 eta Zakarrak taldeen kantuen bertsiok egiten hasi ziren. Entsegua joan, entsegua etorri, hainbat kontzertu egin dituzte dagoeneko.

**GOIKO ROCK**  
Laukote hori ere bergararra dugu. Punk-oi! musika egiten duten arren, ez dute estilo horretan zorrotz sailkatu nahi, euren estiloa ere badutelako. Goiko estaziñuan entseatzeko dute.

Gaztetxean ere hainbat kontzertu

**EGUBAKOITZA, 6**  
Jaiak ondo hasteko, gaztetxeko kideek musika ekitaldia antolatu dute egubakoitzerako. Gaueko ordu txikiak arte, herriko DJ Belas-ekin hard-core eta rock&roll gaua egongo da hurbiltzen diren guztien gozamenerako.


**ZAPATUA, 7**  
Bergarako eta Bilboko talde bana entzuteko aukera egongo da zapatuan, 23:00etan. Batetik, Bergarako Supercools taldea; bestetik, Bilboko Undecimo Mandamiento taldea. Supercools taldea, berriz, gaztetxearekin eta haren inguruan sortutako mugimendurekin lotura zuzena du: hura da gaztetxearen eszenatokian kontzertua egin duen lehen taldea. Laukote hori orain dela ia hiru urte sortu zuten eta lehen entseguak Seminario-ko lekuan egin zituzten. Hasieran hiru lagunek osatzen zuten taldea, baina urte batera laugarrena gehitu zitzaion. Hastapenean punk rock kantuek jorratzen bazituzten ere, denborarekin abestiak abiadura hartzen joan ziren. Eszenatokian daukaten guztia ematen dute, eta *Astindu* aldizkariaren zortzigarren zenbakian egindako adierazpenetan diotenez, etorkizuna garbi dute: euren helburua da musika egiten ondo pasatzea eta barruan daukatena ematea. Supercools taldearekin batera, Bilboko Undecimo Mandamiento taldeak ere kontzertua egingo du zapatuan. Eta hori bukatu eta gero, rock and roll gaua egongo da DJ Ramone-rekin.

**'ASTINDU' FANTZINEAREN 9. ZENBAKIA KALEAN DA**  
Gaztetxeko kideek esan dutenez, *Astindu* fantzinearen bederatzigarren zenbakia gaur jarriko dute herritarren eskura. Tabernetan, txosnetan eta gaztetxean egongo da eskuragarri, borondatearen truke. Bederatzigarren ale horrek honako gaiak jorratzen ditu: literatura; kolektiboaren hitza; segi; erreportajeak -foro soziala, bideo bijilantzia eta gazte sarea-; askotariko albisteak, musika albisteak barne; komikia; Txapa irratia eta gaztetxean eta txosna gunean jaietan egongo diren ekitaldien gaineko egitaraua.

- L Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!  
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



Ondo pasau jaixak!

**ARRAÑAGA**

A U T O E S K O L A

Dietetika kontsulta berria zabalik Antzuolan

(...) mireia alberdi  
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943.76.60.45  
(m) 646.43.34.58  
mireialber@euskalnet.net  
Olaran etxea, herriko plaza 3  
ANTZUOLA

- PISUA GALTZEKO DIETAK
- PISUA IRABAZTEKO DIETAK
- HEZIKETA NUTRIZIONALA
- ERRELEBOKO LANGILEENTZAKO DIETAK
- HAURDUNALDIRAKO ELIKADURA
- KIROLARIENTZAKO DIETAK
- OSASUN ARAZOETARAKO AHOLKULARITZA:  
(KOLESTEROL, DIABETES, HIPERTENTSIOA, AZIDO URIKOA)
- JARRAIPIEN PERTSONALIZATUA
- ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA
- IKASTAROAK...



ELKARRIZKETA JOSEINA ETXEBERRIA EUSKADI GAZTEKO ESATARIA

# “Musika izugarri gustatzen zait, eta etxean denetik entzuten dut”

EDU MENDIBIL

**Joseina Etxeberria** Disko Festarekin etorriko zaigu egubakoitzean. Gauerditik aurrera jendea dantzan jartzen ahaleginduko da San Martin plazan. Irratiko ahots ezagunetako, **Are eta gazteago** programa dauka Euskadi Gaztean.

Irailean ere egon zinen Bergaran, San Martinean. Zein oroitzapen daukazu?

Beldurrez joan ginen, jaietan ibiltzen diren hainbat taldek Gipuzkoako plaza zailenak Azpeitia eta Bergara direla esan ziguten-eta, jendea nahiko hotza zela. Baina jende asko elkartu zen plazan egun hartan, berehala dantzan hasi ziren eta gu ere oso gustura ibili ginen.

**Eta zein musika jarriko duzu oraingoan?**

Beti saiatzen naiz leku bakoitzera ondoen dagoen musika eramaten. Hala ere, egubakoitzean Bergaran kanpoko jende asko ere egongo da eta kontuan izan behar da adin

guztietako jendea biltzen dela. Malgutasun handiarekin egin behar da lan, zuzenekoetan normala denez. Bloke batzuk prestatuta izaten ditut eta inprobisatzeko tartea ere egoten da. Musika elektronikoa (euskalduna zein kanpoko), ikuskizuneko bi dantzariekin batera dantzatzeko moduko beste bloke bat, beste zati bat latino, euskal bloke bat eta rocka tartekatuko ditugu.


**Eta zuk zeuk zein musika entzuten duzu?**

Denetik: klasikoa, elektronikoa, jazz... Musika betidanik gustuko izan dut eta lanetik irtendakoan ere musika entzuten segitzen dut, izugarri atsegin dut-eta. Gaur (martitzena), adibidez, Teenage Fan Club talde eskoziarraren bilduma entzuten etorri naiz lanera. Pop garbia egiten dute, ederra.

**Zein da erosi duzun azken diskoa?**

Wim Mertens piano jotzaile belgikarraren *A man of no fortune, and with a name to come*. Lehen ere biniloan neukan, eta CDa erosi dut. Disko gomendagarria benetan.

**Top manta delakoan erosi duzu inoiz?**



ARTXIBOA

**Ez, ez dut inoiz erosi arrazoi simple bategatik: saltzen dituzten diskoak irradian daukat.**

**Egon zaren azken kontzertua?**

Rezillos taldearena, orain dela gutxi, Jam-en.

**Gustuko duzu Jam?**

Bai. Behin baino gehiagotan egon naiz; oso areto ona da eta ondo funtziona-

tzen du, hango jendeak ondo lan egiten duen seinale. Eta aparkatzeko aukera ona eskaintzen du.

**Zein talde nahi zenuke zuzenean ikusi?**

Asko... Esate baterako, Ramones taldea lehenbiziko epokan (Txibiston ikusi nuen taldea), Pixies (haiek ere kontzertu bikaina eskaini zuten Bergaran) eta inoiz ikusi ez dudana eta asko gustatzen zaidana kantari bat, John Cougar. George Winston piano jotzaile estatubatuarra ere zuzenean ikusteko gogoia daukat.

**Zure etxean izango duzu aitortzea lotsa ematen dizun diskoren bat...**

Ez pentsa, normalean gustuko ez ditudanak Fru-disk dendan trukatzeko ditut. Edozelan ere, My bloody Valentine taldearen bigarren diskoa erosi nuen sekulako kritikak entzun eta gero, eta ez zitzaidan batere gustatu... Chenoren diskoa ere opari egin zidaten... Eta *Undercover* kantua duen Rolling-en diskoa lagun bati opari egin nion; ez nuen batere gustuko eta hura Rolling-zale amorratua denez...

**Disko jartzaileok asko ligatzen ei duzue.**

Horren ospea daukagu, bai, baina ni holakoetan, barau eta bijilia, mutil. Beti izan naiz txarra ligatze kontuetan, eta berdin segitzen dut.

## winterthur

Aseguruak:  
Automobila  
Istripuak  
Etxebizitza  
Komertzioa  
Erretiratze planak  
Pentsio planak  
Osasuna  
Bizitza

*Zorionak denoi!*

Segurai Agentzia CB  
Zurradero kalea 6 B  
Tel./Faxa: 943 76 17 40  
20570 Bergara

**YON BILBAO S.M.**

**Ondo pasau Pazkoetan!**

• ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA  
• ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURTASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK

**35 URTEKO ESPERIENZIA LUZEA**

Tallerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tf eta faxa: 943 76 28 05 • Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32

## Etixerako ederrena, Zanguitun

Eskulan eta arte ederretako produktuak ere baditugu!



Koloreak sortzeko makina  
Paretetarako,  
zorurako,  
altzariak  
margotzeko...

%20ko  
deskontua  
etxerako  
pinturetan

### ZANGUITU margoak

Irala z/g. BERGARA.  
Tel.: 943 76 19 54.

### IRU margoak

Araba etorbidea 3. ARRASATE.  
Tel.: 943 79 11 71.

Parket flotatzailea\* Sintasola\* Mocketak\*

Paper pintatuak

\*Salmenta eta etxean ipintzea.



### deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4. BERGARA.  
Tel.: 943 76 08 69.


Alfonbrak Alfonbrak neurrira Funda nordikoak  
Edredoiak Kortinak Toailak Izarak



# Bergarako Udalak jai zorientsuak opa dizkizue!



BERGARAKO UDALA




\* nite-lite [SCENE & NEWS]

MARCH/APRIL \*surface released its 'Craftmade' issue to the media & fashion industry in NYC with an event held in affiliation with CP Company. In San Francisco, the issue was celebrated at Architects & Heroes gallery/salon. After showing in NYC, Boston and LA, \*surface's Avant Guardian exhibit was welcomed into its final resting place at San Francisco's Diesel Superstore, where the installation will remain on display this spring.



Kato Moss & Ariane Valetta @ AMP



Duncan Sheik @ Bottega Veneta




Yelena & Alan Cummings @ Cynthia Rowley

38 \*surface

HONEK EZ DAKIXE




GENE & BESS  
Patrick McMullan



Marc Jacobs after party



Mira Sorvino, Alex Moorse & Serena Altschul



Mark & Ester © DKWY




Ryan Phillippe - after hours NYC



Uma Thurman & friend © Misanthropo



Kirsty Hume & Donovan Leitch © Sway



Clive Davies © Joe's Pub



Ethan Hawke © Tidal House



MILLA JOVOVICH



anniversary. Il jet-set internazionale e il gotha di Hollywood alla grande festa che ha celebrato lo splendore e lo stile di una carriera unica.

# KEIRUA NUN DAGON

# 30.

URTEURRENA OSPATZEKO  
%35erainoko deskontua altzarietan



ETA, GAINERA...  
Koltxoia erosteagatik %25eko deskontua  
eta koltxoia estaltzekoa **opari**

Barrenkalea 23, Tel. 943 76 29 65 • Masterreka 9

## ederTU

Jai zoriontsuak bezero eta herritar guztioi



Burdiñate 1. 943 76 02 57



Toki Eder plaza 3. 943 76 14 87

Batean edo bestean, zerbitzurik onena geurean



# KONDE PANADEROKUA

Ondo pasa jaixetan!

'CAMP'

# Jendea dantzan jartzeko, bi orkestra izango ditugu

Bi 'camp' dantzaldi izango ditugu aurten, Tarantella eta Nueva Etapa taldeekin

AINZANE IRIZAR

Ohiko hainbat erro-  
meria egongo den  
arren, dantzazaleek  
camp musikaz goza-  
tzeko eta dantzarako  
aukera ere izango  
dute Tarantella eta  
Nueva Etapa  
orkestrekin.

**B**i talde horiek ez dira  
berriak Bergarako  
Mendekoste jaietan.  
Iaz ere hemen izan  
genituen biak. Tarantella  
orkestrakoek, gainera, espe-  
rientzia handia dute ikus-  
le bergararrekin; izan ere,  
taldekoek esan digutenez,  
etortzen diren hamabiga-  
rren urtea da. Jendeari gus-  
tatzan zaion seinale, segu-  
ru.

Zapatu gauean dute dan-  
tzazaleek lehendabiziko  
hitzordua, San Martin pla-  
zan. Nueva Etapa taldea-  
ren emanaldia izango dugu  
hantxe, 23:30ean.

Orain dela zortzi bat  
urte sortu zuen orkestra  
hori Francisco Amorrich  
musikariak, eta gaur egun  
sei lagunek osatzen dute



Orkestra handia da Tarantella, hamabi musikaririk osatutakoa.

Nueva Etapa. Gaur egun  
boladan dauden abestiez eta  
musikaz gainera, dantzaldi  
eta erromerietako ohiko  
musika eskaintzen du  
orkestra horrek, hots, paso-  
dobleak, rumbak...

**Tarantella orkestra Bergarako  
jaietara etortzen den  
hamabigarren aldia izango da  
aurtengoa**

Dena dela, 60ko eta  
70eko hamarkadetako  
hainbat abesti entzuteko  
aukera ere eskainiko digu-  
te zapatu gauean; besteak  
beste, The Beatles, The  
Rolling Stones, Los Brincos,

Espoloian eta plazan

**Zapatua**  
23:30  
**Nueva Etapa**  
**Astelehena**  
23:00  
**Tarantella**

Los Bravos eta Rita Pavo-  
neren abestiak dituzte  
euren errepertorioan.

**TARANTELLA ASTELEHENEAN**

Astelehen gauean, berriz,  
Espoloian dute hitzordua  
dantzazaleek; Tarantella  
orkestraren txanda izango  
da egun horretan, eta  
22:30ean hasiko da ema-  
naldia.

Orkestra handia da  
Tarantella, hamabi musi-  
karik osatutakoa. Hamabi  
horien artean, lau lagunek  
abestu egiten dute eta gai-  
nerakoek hainbat musika-  
tresna jotzen dituzte: tron-  
peta, flauta, gitarra, akor-  
deoia, bateria...

Esan bezala, hamabi bat  
urte dira Tarantellakoak  
Begarako jaietara etortzen  
direla; horrela, publiko fide-  
la dute dagoeneko herrita-  
rren artean, eta eurek ere  
ondo ezagutzen dituzte, bai,  
Begarako entzule eta dan-  
tzazaleak.

Hogei urtetik gora dara-  
matzate herriz herri Taran-  
tellakoek jaietara musika eta  
dantza jartzen. Izan ere, ez  
dute musika hutsik baka-  
rrik egiten.

# Tratamientos Térmicos TTT,S.A.



Elgeta bidea, 130 P.K. 20570 BERGARA. Gipuzkoa  
Tel.: 943 76 48 44 Faxa: 943 76 50 47  
e-maila: ttt@grupottt.com web: www.grupottt.com

**JAI ZORIONTSUAK  
IZAN DITZAZUELA  
BERGARAR GUZTIOK**

# Nereia

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52

Ondo pasau  
jaixak!



## TXOSNAK

# Karpa erraldoia eta bi txosna jarriko dituzte Bideberrin

Urte batetik bestera gero eta indartsuago dago Txosna batzordea; iaz baino talde gehiago daude bere baitan, eta horrez gain, hainbat berritasun eskainiko dizkie herritarrei: txosnei dagokienez, karpa erraldoi bat eta ohiko bi txosna jarriko dituzte; jaietarako kantua egin dute, baita egitarau propioa ere.

MONIKA BELASTEGI

**Astin ezazu Bergara.** Hori da Txosna batzordeak aukeratutako leloa, eta lelo horri sendo eusteko eta herria astintzeko, berritasunez jositako gunea eskainiko du.

**O**rain dela lau urte sortu zuten Txosna batzordea. Besteak beste, sortzaileen helburua zen Bideberriko txosnen gunea jaietarako gune berezitua izatea, eta "jaiak herritartzeko prozesuan lagungarri izan zitekeen egitaraua antolatzeko", batzordeko kideek esan dutenez. Lau urteren ondoren, helburu bera betetzeko asmoz dihardu Txosna batzordeak, eta urtetik urtera herritarrei askotariko gauzak eta berriak eskaintzeko lanean.

Txosna batzordea osasun betez dago, eta horren

seinale da bere baitan dauden taldeen kopuruak aurtengo gora egin duela. Honaiko talde hauek daude batzordean: AEK, Astindu aldizkaria, Txapa irratia, Bai Euskal Herriari, EHE, Askatasuna, IA, Segi eta Bergara Aurrera. Gainera, iazko esperientzia ikusi eta gero, aurtengo ere "talde guztiek diru bateratuaren aldeko apustuari eustea" erabaki dutela azaldu dute.

## LAU BERRITASUN NAGUSI

Lau dira batzordearen berrikuntzak: bata, txosnei dagokie. Bi txosna eta karpa erraldoi bat jarriko dituzte Bideberrin. Batzordeko kideek esan bezala, "karpa erraldoiak 15 x 10 m neurtuko du, 15 metroko barra bat izango du eta jai guztietan zabalik egongo da. Horrez gainera, beste bi txosna egongo dira, ohiko txosnak, eta bietako batean ogitartekoak emango ditugu, egubakoitzean eta zapatuan".



Aurreko astean prentsaurrekoa eman zuten batzordeko kideek, berritasunen eta jaietarako antolatutako ekitaldien berri emateko.



INMOBILIARIA

LEGAZPI  
Santikutz 8.  
943 73 05 25

## Gora Pazkoak!

BERGARA  
Ibargarai 3.  
943 76 97 97



INMOBILIARIA



ASEGURUAK S.L.



ZURICH  
ASEGURUAK

CASIMIRO BRIZ SALINERO  
Aseguru - Aholkularia

Zorionak denoi!

Araba etorbidea 3 - 2. 20.500 Arrasate T: 943 797 152 T/F: 943 794 235  
casimiro@brizseguros.com


Barrenkalea 44. 20.570 Bergara T: 943 765 785 F: 943 769 246  
briz@brizseguros.com

**TXOSNAK**

ARGAZKIAK KOLEKTIBOAK ZER DA? EGITARAUA

**BATZORDEKO KOLEKTIBOAK**

Urtero kolektibo ezberdinek hartzen dute parte batzordean, urtean zehar lanean gizarteko esparru ezberdinetan lanean dabiltean kollektiboan izaten dira, beraien lana ezagutzera eman eta bide batez finantziario bide bat lortzeko asmoarekin elkartuak



Web gune ofizialak...  
**Bai Euskal Herriari**  
**AEK**  
Txapa Irratia  
Ikasle Abertzaleak  
Euskal Herria Euskaraz  
Segi

Kontraintformazioa...  
Astindu (digitala)  
**la haine**  
**rebelion**  
**nodo50**

bestelakoak...  
zuk proposatu!



Batzordea osatzen duten talde bakoitzaren gaineko informazioa dago webgunean, besteak beste

Bigarren berritasuna martitzeneko herri bazkariari dagokio. Aurten bazkariaren antolaketan hartu du parte Txosna batzordeak Xamatx dantza taldearekin eta Jardun elkartarekin batera. Bazkariako prezioari dagokionez, ikasleendako eta langabeendako zortzi euro balio du eta langileendako, berriz, 12 euro. Txartelak Pol-Polen, Kortazarren, gaztetxean, Ariznoan eta txosnetan eskura daitezke.

Horrez gain, kantua ere egin dute batzordeko kideek herria eta txosnen gunea alaitzeko. Abestiaren hitzei dagokienez, "batzordea osa-

tzen duten taldeen izaera islatzen du, besteak beste, autogestioa, euskara, presoaren eskubideak eta adierazpen askatasuna.

**BATZORDEA AMARAUNEAN**  
Azkeneko berritasunak Internetekin du lotura; izan ere, Txosna batzordeak webgunea estreinatu berri-

du; [www.bergarakua.org](http://www.bergarakua.org) helbidean batzordearen gaineko informazio ugari jaso daiteke; batzordea osatzen duen taldeen gaineko infor-

mazioa, jaietarako prestatu duten egitaraua, argazkiak eta foroa ere badu, herritarren iritziak eta ideiak jasotzeko.

Berritasun horiez gainera, jaietarako egitarau propioa ere antolatu dute aurten ere. Egubakoitzetik martitzenera bitartean hainbat ekitaldi egongo dira, goiko taulan ikusten denez: besteak beste, bertsolariak, hainbat kalejira, kontzertuak, erakusketak eta baltsa jaitsiera Deba ibaian.

**GAZTETXEAN ERE EKITALDIAK**  
Gaztetxeako kideek ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte Pazko jaietarako, alboko taulan ikusten denez: besteak beste, musika emandak eta antzerkia egongo dira gaztetxean.



**Gaztetxeako egitaraua**

**EGUBAKOITZA 6**  
23:00-02:00: **DROGA ANALISIAK**, Ailaket taldearekin.  
Gau osoan hardcorea eta rock-and-rola DJ Belas-ekin.

**ZAPATUA 7**  
23:00: **KONTZERTUA**: Supercools eta Undecimo Mandamiento.  
Gero, rock-and-rola gau osoan DJ Ralne-ekin.

**DOMEKA 8**  
19:30: **ANTZERKIA**: Mai Gorostiagak *Mai en klowncierto* lana egingo du.

ERLOJUDENDA

**AINH**



**A**

Jai zorientsuak igaro ditzazuela!

Boni Laskurain 2. Tel. 943 76 47 40

BITXITEGIA



**Sukaldeak. Horma armairuak.  
Neurrira egindako altzariak.  
Ateak eta leihoak. Arozlanak.**

BERGARA Tel. 943 76 58 86 / 670 765 886

Pentekoste jai zorientsu eta alaiak guztioi!

## SUKALDARITZA

# Hamahiru lapiko pil-pil erako bakailao lehiaketan

Herriko hamahiru elkartetako kideek hartuko dute parte zapatu goizean jokatu den lehiaketan

AINTZANE IRIZAR

Lapiko artean pasatuko dute zapatu goiza herriko hamahiru elkartetako sukaldariak. 11:30ean hasiko da sukaldaritza lehiaketa San Martin plazan.

Jaietako gauek lagatzen duten usainaren gainetik, bakailao usaina nagusituko da zapatu goizean San Martin plazan. 11:30ean hasiko da sukaldaritza lehiaketa eta eguerdi alderako gertu izango dituzte pil-pil erara prestatutako

bakailao platerak lehiaketako partaideek.

Azkeneko urteotan ohi-tura bihurtu da herriko elkarte gastronomikoetako bazkideendako Udalak antolatzen duen lehiaketa hori, eta urtean barrena ondo prestatzen dira elkarre bakoitzeko sukaldari onenak. Nork bere sekretuak izaten ditu, eta sekretu horiek praktikan jartzeko aukera izaten du jaietako egun horretan.

Hasteko eta behin, lehengaiak onak izatea da garrantzitsuena. Hortik aurrera, nork bere abildadeak praktikan jarri eta maitasunez prestatzea ei da garrantzitsuena. Dena dela,



BERRIGARA

Partaideek 13:00etarako gertu izango dituzte platerak.

## Aurreko urteetan ez bezala, aurten antolatzaileek erosiko dituzte bakailaoa gertatzeko lehengaiak

sekretutxoak ondo baino hobeto gordetzen dituzte sukaldariak.

### HAMAHIRU LEHIAKIDE

Herriko hamahiru elkarte gastronomikotako bazkideek hartuko dute parte aurtengo lehiaketan; iaz baino bi gutxiagok. Dena

dela, kontuan hartu behar dugu iazkoa izan zela parte-hartzaile gehien izan zituen urtea.

Hona hemen parte hartuko duten elkarteak: Sagarpe, Gure Ametsa, Pertxa, Hermandad Pertxa, Madura, Oilagorra, Altzari, Umore Ona, Artatse,

Basalgo, San Juan, Aizepe eta Jaolatza.

Aurtengo lehiaketan, gainera, badago berritasun bat; izan ere, aurreko urteetan lehiakide bakoitzak erosten zituen lehengaiak, hau da, bakailaoa, berakatzak eta bestelakoak. Aurten, berriz, antolatzaileek eurek erosiko dituzte eta lehiakideei eman. Horrela, aurten denek aukera berberak izango dituzte lehengai berberekin plater goxoa egiteko.

13:00etarako gertu izan beharko dute bakailaoa lehiakideek.

Behin lehiakideek euren lana bukatuta, epaile mahaikideen txanda izango da. Haien lana, dena dela, ez da hain astuna izango, izan ere, plater guztiak banan-banan dastatu beharko dituzte, eta hori ez da, ez, batere zeregin txarra, kontuan hartzen baldin badugu, gainera, ordu horretarako gose antzean egongo garela guztiok.

Ez dute lan erraza izango hamahiru lehiakideen artean onena zein izan den erabakitzeke. Dena dela, nork bere iritzia emanda, irabazlea eta hurrengo biak zeintzuk izango diren erabaki beharko du epaile mahaia.

Trofeoarekin, txapelarekin edo horrelako sari barik, lehiakide guztiak izango dute, zelan baita, saria; izan ere, goiz osorako lapiko artean pasatu eta gero, lagunartean gustura bazkaltzeko aukera izango dute elkarteetako kideek zapatu eguerdian.

Goiz osoan barrena, gainera, trikitilariak jardungo dute plazan, sukaldariak eta gainerako herritarrek alaitzen.



bilintx

Zure aukera musika eta liburutan.

Ibargarai, 12 - 20570 BERGARA  
Tel.: 943 764050 Fax: 943 762352  
bergara@megadenda.com  
http://www.megadenda.com

eef euskalgintza elkarlanean fundazioa

# Ipiñarri zerrategia S.L.

IBARRA z/g. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.

## Altzariak Aroztzintza Eraikuntza Enbalajea

# TELAETXE S.A.

Oihalen neurketatik etxean  
ipintzera arte dena gure esku

Fabrikako preziotan




Elgeta bidea,  
gasolindegitik  
300 metrora  
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41  
Astelehenetik  
larunbatera  
10:00etatik 13:00etara  
eta  
16:00etatik 20:00etara  
zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain **ALFONBRAK**

## ELUSU ERAIKUNTZAK



- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
  - Teilatuak
  - Sukaldeak
  - Bainuak
  - Fatxadak

Baserri eta jauretxeen  
erreformetan  
eta txaleten eraikuntzan  
espezializatuta gaude

Arruriaga 5  
943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45

**Ondo ibili Pazkoetan!**

## HERRI BAZKARIA

# Jaietako azken bazkaria lagun arteko giroan

Herri bazkaria San Martin plazan egingo dute, eta gero koadrilen arteko lehiaketa egongo da

AINTZANE IRIZAR

Batzuk gosetuta eta beste batzuk egarrituta iristen dira herri bazkarira. Kontuak kontu, ondo pasatzea eta jaietako azken eguna aprobetxatzea izaten da guztien helburua.

Lau egun jai giroan pasatu eta gero, jaietako agur esateko eguna izango dugu martitzena. Herri bazkaria izango da egun horretako ekitaldi nagusienetakoa, Jardunek, Txosna batzordeak eta Xamatzek antolatuta.

Txartelak salgai egongo dira honako toki hauetan: Arrano, Kortazar eta Pol-Pol tabernetan, gaztetxean, AEK-Akulu euskaltegian, Jardun elkartearen egoitza eta txosnen gunean. 12 euro ordaindu beharko dituzte langileek eta zortzi euro langabe eta ikasleek.

Menu goxoa prestatu dute bazkarirako: hasteko, pasta-entsalada, oilasko errea eta hojaldre-tarta. Gero, jakina, kafea eta nahi



Herri bazkaria 14:30ean izango da; aurretik, 13:00etan, triki-poteoa egingo dute.

adina kopa hartzeko aukera egongo da.

#### PARODIA ETA JOKOAK

Bazkalosterako ere egitarau polita antolatu dute: lehenengo, euskarak epai-

**Herri bazkariaren ostean koadrilen arteko lehiaketa antolatu dute, eta era guztietako galderak eta probak egongo dira**

tegiatan duen egoera salatzeko parodia bat egingo dute Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek; gero, 16:30 aldera, koadrilen arteko lehiaketa egongo da, hainbat probarekin: herri

kirolak, era guztietako galderak eta buruari eragiteko beste hainbat joko. Ondotik jateaz gain, ondo balio hobeto pasatzeko aukera polita egongo da, hortaz, martitzenean.

San Martin plazan  
**Martitzena**  
13:00 Triki-poteoa  
14:30 Herri bazkaria  
16:30 Jolasak

#### Herri bazkariko egitaraua

13:00: TRIKI POTEOA  
Pol-Pol tabernan elkartuko dira trikitilariak eta jaizaleak, eta txikiteoari ekingo diote.

14:30: BAZKARIA  
Herri bazkaria San Martin plazan.

Bazkalostean: Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideek parodia bat egingo dute euskararen egoeraren gainean.

16:30: JOKOAK  
Koadrilen arteko lehiaketa egongo da. Bazkalostea, gainera, txarangak alaituko du.



Jai zoriontsuak izan ditzazuela!

50 urte baino gehiagoko esperientzia eta profesionaltasuna egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano eta butano eta berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak. Bainuko altzariak.

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA  
BAINURAKO ALTZARIAK

**Larrañaga  
Eguren, B. M.**

Juan XXIII  
Tf. eta Faxe 943 76 11 88  
20.570 BERGARA





**Saunier Duval**



**DICOMAN S.L.**

San Lorentzo, 21  
20570 Bergara  
Laguntza teknikorako zerbitzu  
ofizial baimendua  
**Tf. 943 76 06 61**

**BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**



San Juan 1 A,  
BERGARA  
943 76 54 91  
Faxa:  
943 76 08 04


# UGARTE

**AROSZTEGIA-ALTZARIAK**



*Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak*

**Zorionak denoi!**



*Eraman plazerra  
zure etxera*

**gelatza s.l.**  
Zubillaga auzoa 1 • OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22 • Faxa: 943 78 15 51

# BILBO garraioak

Bergara-Bilbo eguneroko zerbitzua / Partikularrendako eta industriendako



Ortuibar pasealekua 7, 2-B  
943 76 35 74 / 609 479 443

Aupa bergararrok!

ANTZERKIA

# Kaleak antzoki bihurtuko dituzte bi taldek

## La Mascara eta Trapu Zaharra taldeek kale antzerkiaz gozatzeko aukera eskainiko digute jaietan

AINTZANE IRIZAR

Datozen egunotan Bergarako kaleetan *Elvis* edo *Jordi Carlitos* ikusten badituzue, ez harritu, eurak ere Pazko jaiak ospatzera etorriko dira-eta.

Zapatuan eta domekan antzerkia herriko kaleetara ekarriko digute bi antzerki taldek: Kataluniatik datorrigun La Mascara taldeak zapatuan eta Trapu Zaharrak domekan.

*Jordi Carlitos en la H* es muda antzezlanak ikusteko

aukera izango dugu zapatu arratsaldean Xabier Maria Munibe plazan. 16:30 aldera iritsiko da *Jordi Carlitos* Kataluniatik Bergarara. *Clown*-a da *Jordi*; antzezlaneko protagonista nagusia eta bakarraz izateaz gain, hura da argien, musikaren eta antzezlaneko gainerako elementu guztien ardura-duna ere.

Antzezlan dinamikoa da *Jordi Carlitos*-ena; hain zuzen, ondo pasatzeko egingdako ikuskizuna da. Egunero pasatzen zaizkigun gauzak eta egoerak oinarri hartuta, hainbat pasarte ikusteko aukera eskainiko digu Marcelo Gonzálezek, *Jordi Carlitos*-ek.



Jordi Carlitos clown-ak zapatu arratsaldean bisitatuko gaitu.

LA MASCARA

## Trapu Zaharra taldeak Leioako Umore Antzerki Jaialdian lehen saria eskuratu zuen iaz, 'Laugarren Tenorea' lanarekin

Keinuen antzerkiaren barruan ibilbide luzea eta esperientzia handia duen taldea da La Mascara, eta mundu osoko jaialdietan, Amerika eta Asiako hain-

bat herrialdetan, esate baterako, hartu du parte.

### 'ELVIS', ERROMES

*Jordi Carlitos*-en bisitaren ondoren, domeka arratsal-

dean *Elvis Presley* etorriko zaigu jaietara. *Elvis* 16:30ean iritsiko da Xabier Maria Munibe plazara.

Trapu Zaharra antzerki talde euskaldunaren eskutik datorrigun *Elvis Presley*, hain zuzen ere, *Elvis, joan hadi!* antzezlanean. Protagonista, baina, *Elvis Presley*-ren antz handia duen arren, ez da *Elvis*. Hori bai, *Elvis* zenaren jarraitzaile sutsua da eta emazteari tratatu txarrak era-

Munibe plazan

**Zapatua, 16:30**

La Mascara taldea  
*Jordi Carlitos*

**Domeka, 16:30**

Trapu Zaharra taldea  
*Elvis, joan hadi!*

giteaz zeharo damututa dagoen gizona.

Oso dago damututa, eta bizitza berri bati ekiteko konpromisoarekin, Santiagoko bidea egingo du erromes; Santiagoko bide hori, baina, alderantziz egingo du. Santiagotik abiatu eta etxeko atariraino iristea da haren helburua. Bide hori guztia gurutze bat bizkarrean duela. *Lali, barkaidazu, arren* leloa jartzen duen gurutzearekin, hain zuzen ere.

Bere asmoa da gurutzearekin eta *Elvis* bezala jantzita azaltzea emaztearen aurrean eta harekin berriro elkartzea. Baina gauzak ez zaizkio nahi bezala aterako... Bueno, dena ere ez dugu kontatuko, ezta?

Istorio horren amaiera, baita hasiera ere, ikusteko domeka arratsaldean duzue aukera.

Trapu Zaharra taldeak Leioako I. Umore Antzerki Jaialdian lehen saria lortu zuen beste antzezlan batekin; haren ordainean, lan berria ekoizteko konpromisoa hartu zuten, eta haxe da konpromiso horren emaitza: *Elvis, joan hadi!*



# ROTULOS ZABALETA

Mota guztietako errotuloak

## Ondo ibili guztiok Pazkoetan!

Telf. 943 76 57 34 Faxa 943 76 58 53 Mobila 689 54 81 83 BERGARA  
r-zabaleta@euskalnet.net



### VOLKSWAGEN TOURAN berria:

- Sei aire-zaku, ABS, EDS, TCS, ESP
- Aire girotua, zazpi eserleku, xenona, nabigazioa
- TDi berriak; 105 eta 130 ZP
- Sei martxa

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 BERGARA Tel.: 943 76 12 50



Zero kilometroko autoen kopuru mugatuak: IBIZA, CORDOBA, FABIA, POLO,... ZURE ZAIN DAUDE!!!

## TELEBISTA

# Jaien gainekeo saio bereziak GOITBn

Martitzeneko albistegia Bergaran grabatuko dute eta jaien gainekeo saio berezia ere egingo dute

AINTZANE IRIZAR


Aurten ere Deba-goien osora zabalduko du GOITBk Pazkoen berri. Hala, martitzenean Bergarako jaiak izango dira ibarreko telebistaren gai nagusi.

Ibarreko telebistak ez du hutsik egingo aurtengo jaietan ere. GOITBk bertatik bertara bizi izango ditu Pazkoak eta ibarreko herri guztietara zabalduko du jai horien berri. Horretarako, saio bereziak eskainiko dituzte martitzenean eta eguaztenean.

## ALBISTEGI BEREZIA

Alde batetik, urtero moduan, albistegi berezia grabatuko dute. Martitzenean izango da hori, San Martin plazan, eguerdi aldera.

Bi zati izango ditu albistegiak: lehendabiziko zatia ohikoa izango da, hau da, egunean barrena ibarreko herrietan gertatu diren berriak jasoko dituzte; bigarren zatia, berriz, Bergarako jaien gainekeo izango da: erreportajea eta hainbat elkarrizketa egingo dituzte. Jaiekin lotutako albistegi berezi hori 14:30ean eta 20:00etan eskainiko digute Goiena Telebistan, martitzenean bertan.



Aurten ere Bergaran grabatuko dute martitzen eguerdiko albistegi.

San Martin plazan

## Martitzen eguerdian

Bergaran grabatuko du martitzeneko albistegi berezia Goiena Telebistak

## GOITB Mendekoste jaietan

EKAINAK 10

14:30:

### ALBISTEGIA

Arratsaldean, 20:00etan, hain justu, eguerdian grabatutako albistegi berezi hori errepikatu egingo dute.

21:00:

'JAIK 2003'

### SAIO BEREZIA

Mendekoste jaien gainekeo saio berezia eskainiko digute.

Jaietan izandako ekitaldi nagusienak eta jaietako giroa batuko dituzte saio berezi horretan.

## Martitzen eguerdian Bergaran grabatutako albistegi berezia ikusi ahal izango dugu GOITBn

JAIK 2003

Horrez gain, *Jaiak 2003* izeneko saio berezia ere eskainiko digute Goiena Tele-

bistan. Mendekoste jaietako ekitaldi nagusienetan eta kaleko giroa jasotzen jardungo dute jaietan, egu-


bakoitzetik martitzenera bitartean.

Osagai horiekin guztiekin saio berezia prestatuko dute eta martitzen iluntzean, jaietako azkeneko egunean, alegia, ikusi ahal izango dugu jaien gainekeo saio hori GOITBn, 21:00ak aldera, 20:00etako albistegiaren ondoren, hain zuzen ere.

## DANTZA TXAPELKETA

Domekan jokatu duten Euskadiko Dantza Txapelketa ikusteko aukera ere eskainiko digu GOITBk, eguaztenean, hilak 11, 20:30ean, iluntzeko albistegiaren ondoren.


Arratsaldeko finala grabatuko du Goiena Telebistak, eta osorik emitituko du eguaztenean.




San Juan auzoa z/g 151 Posta kodea  
BERGARA • 943 76 90 04

**PROFESIONALITASUNA,  
GAS BEROGAILUEN  
EKOIZPEGINTZAN**

1997ko irailan, Bergaran Geyser Gastech Teknologi eta Ekoizpen Zentrua sortu zen. Gure bezero, lankide eta eskualde honetako jende oro agurtu nahi ditugu.







Instalakuntza moderno  
eta guztiz erosoekin,  
gure bezeroek merezi  
duten kalitatezko  
zerbitzua eskainiz.

# Ariznoa


## HOTELA

Telesforo Aranzadi, 3  
Tel. 943 761 846 - 943 761 847 Faxa: 943 761 848  
20570 BERGARA - Gipuzkoa


# B E R G A R A



Paulo Elkoro



Jabier Lazkano



Mikel Zubimendi

## ZENBAT?

Autobusean isiltasuna  
Lurrina kristalean  
Eguna argitzear da  
Norbait kantuan eta ahopean

Lur arrotz hauetan barrena  
Paisaia ezezagunei so  
Kantu batek narama  
Berriro ere zuganaino

Aste bat, aste bi ostera  
Arrari leialak legez  
Izen gabeko herri  
Hauetan barna behin eta berriz

Zenbat gauza esateko  
Zenbat gau esperoan  
Biok elkarri begira  
Denbora aurrera doa

Zure eskua nirean  
Mehatxua pasuan  
Ohituko ote naiz egundo  
Kristal lodi hau laztantzera

Esku bete musu eta goraintzi  
Herriko historiak  
Mosto gorri eroriak  
Eta irripar bat dakarkizut

Eskegi itzazu bihotzean  
Asmo handien ondoan  
Eta barkatu egidazu  
Nire begiok lanbrotzea

Zenbat jende kaleetan  
Zenbat oihu ahoan  
Elkarrengandik hain urrun  
Denbora aurrera doa

Hitzak: Unai Iturriaga



Jose Migel Gaztelu




Ane Miren Alberdi



Mikel Askasibar



Xabier Oregi



Antxon Sasiain

## Eta errefuxiatuak

**JAIK BAI, EUSKAL PRESOAK ETA ERREFUXIATUAK  
EUSKAL HERRIRA ERE BAI**



**Bergarako Euskal Presoak Euskal Herrira taldea**

JAIK

# San Esteban Elkoartiko jaia domekan

Elorregi auzoko ermitan meza izango da 12:15ean eta gero, salda, txorizoa eta kukainak

EDU MENDIBIL

**San Esteban Elkoartiko jaia ospatuko da domekan. Aspaldiko ohiturari eutsiz, meza eta hamarretakoa egongo dira. Ermita XVII. mendekoa da.**

**E**lorregi auzoko Elkorobarrutia baserriaren ermita da San Esteban. 1993ko Jose Miguel Barandiaran ikerketa bekari esker Antxon Agirre Sorondok eta Koldo Lizarralde argitaratutako *Ermitas de Gipuzkoa* liburuan jasotzen denez, garai

baten Pazko astelehenean ospatzen zen San Estebaneko jaia, baina 1987a ezkerro jaietako domekan izaten da. Auzotarrak hurreratzen dira, batez ere, San Estebanera egun horretan. Aurten Karlos Ostolaza abadeak esango du meza 12:15ean eta gero, hara joaten direnek mokadua hartzeko aukera izango dute eta umeendako kukainak egongo dira. Josu Okinak txistua joko du giroa alaitzeko.

## XVII. MENDEKO ERMITA

Lehen, inguruko emakumeak ermitara joaten ziren umeen entzumen-arazoak sendatzeko. Aldareko lanparako olio tanta bat jartzen



Auzotar dezente hurreratzen da San Estebanera Pazkoetako domekan.

zieten umei belarrian. Negar egiten zutenak eta berbetan hasteko zailtasunak zituztenak ere eramaten zituzten.

*Ermitas de Gipuzkoa* liburuan ez da zehazten

ermita noizkoa den; lehen erreferentzia 1802koa dela aipatzen da bakarrik.

Pedro Jose Eguren berengararrak Oñatiko Unibertsitatean dagoen Gipuzkoako Protokoloen Artxibo

Historikoko agiriak aztertu ditu; hango dokumentu baten jasotakoaren arabera, Martin Pérez de Elkorobarrutiak 1658an eskatu zion ermita eraikitzeke baimena Kalagorriko apezpi-

San Estebanen

**Domeka  
12:15**

Meza egongo da eta gero hamarretakoa banatuko dute, eta kukainak egongo dira

kutzari. Jarraian 1658ko abenduaren 10eko agiri baten zera jasotzen da: "...dijeron que Martin Pérez de Elkorobarrutia escribano del Rey y dueño de la casa solar de Elkorobarrutia ha edificado y hecho una ermita en tierra propia suya enfrente de la dicha casa con paredes de cal y canto y su tejado y puerta y altar con la imagen del Glorioso San Esteban protomártir. (...) Y fueron el dicho cura [Don Ignacio de Ascaraunz] y el dicho bachiller Zupide a la dicha ermita y habiéndola visto hallaron acabada y que estaba con toda decencia y le bendijo concediendo licencia para celebrar misa y hoy este día ha dicho su primera el dicho cura en la dicha ermita".

Egurenek esan digunez, handik urte batzuetara ermitaren zati bat jausi egin zen eta Andres Pérez de Elkorobarrutiak (Martinen semeak) berriro altxatu zuen. Bernardo de Gallas-tegi Olaso Santa Marinako abadeak bedeinkatu zuen ermita 1718ko abenduaren 19an, eta meza esateko baimena eman zuen berriz.

### TRADITION

Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel. 943 76 22 48

### DIFFUSION QUICK SERVICE

Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel. 945 13 47 26

### DIFFUSION

Garbera ztro. kom., Garbera 1- 23 aretoa  
20017 DONOSTIA • Tel. 943 39 45 86

### DIFFUSION

Urbil ztro. kom., Astecasain polig. (Txikiardi) - B7 aret.  
20170 USURBIL • Tel. 943 36 08 17

### DIFFUSION

Lakua ztro. kom., Wellington Dukea 6A - 05 aretoa  
01010 GASTEIZ • Tel. 945 17 91 50


Love is in the Hair  
**Jean Louis David**

**MUJIKA** **UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE**  
**FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

Ondo pasa denok  
Pazkoetan!



# Ondo ibili Pazkoetan!

# UDAL

## EUSKALTEGIAK

### BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net  
berg.euskudal@euskalnet.net



- Gosariak
- Bokatak
- Egunkariak

- Bertako opilak
- Kafetegia
- Terraiza

EGUNERO GOIZEKO 07:00ETATIK ZABALIK

ONDO PASAU JAIXAK!

Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Obradorea:  
Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13



**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



**SOLAR-CHECK**  
*Tuning*

**NOBEDADEA:**  
Eguzkitik babesteko laminak!  
Baita koloretan ere!

IBILGAILUENDAKO KRISTALAK

Autobus / Kamioi / Turismo / Furgoneta

Muntatzea • Salmenta • Konponketa

**DESA CRISTAL**

943 76 36 09 Bergara • 943 69 16 16 Irura

Ondo-ondo pasatu jaietan...



**Jai zorientsuak izan ditzazuela guztiok**

**BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00**

**TABERNA Tel. 943 76 49 33**

**San Pedro 4, BERGARA**



# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.  
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren.  
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA

**Oihana Alzelai**

Ekainaren 8an, 10 urte.  
Zorionak! Familiakoak;  
bereziki, Amaia.



BERGARA

**Jose Mari Lete**

Ekainaren 1ean, 80 urte.  
Zorionak aitxita!  
Ekhi.



BERGARA

**Iker**

**Ruiz de Larramendi**

6an, 7 urte. Zorionak!  
Familiakoak; bereziki, Olatz.



BERGARA

**Leire Moñux**

Ekainaren 9an, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



ANTZUOLA

**Aimar Larrea**

Ekainaren 10ean, 3 urte.  
Urte askotarako!  
Ibai eta Ekain.



BERGARA

**Lorea Franco**

Ekainaren 7an, 9 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Asier.



BERGARA

**Eider Etxaniz**

Ekainaren 8an, 2 urte.  
Zorionak! Amaia  
eta gurasoak.



BERGARA

**Maddi Goenaga**

Ekainaren 11n, 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Itsaso.

**iMPRESPAL, C.B.**  
INPRIMATEGIA

- Offset
- Enkuadernazioa
- Koloretako fotokopiak

Komenio kalea 2 • 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 00 01 • Faxes: 943 76 22 41  
e-posta: [imprespal@euskalnet.net](mailto:imprespal@euskalnet.net)

*Zuri beltz Margoak*



**Barnealde eta kanpoaldearen erreforma  
Pintura zerbitzu osoa**

Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494  
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615 045

**Ondo pasau  
jaietan!**

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 17a / 113. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

## Enpresa Ekintzetako Zentroa zabaldu dute Oларan etxean

AINTZANE IRIZAR

Otsailean bete zen urtebete Oларan etxea inauguratu zutela. Ordutik hona hainbat erabilpen eman dio Udalak, beheko solairuari, batez ere. Bigarren eta hirugarren solairuetan; berriz, Enpresa Ekintzetako Zentroa jarri du Mankomunitateak.


Lantegi Eskolako ikasleek eraberritu zuten Oларan etxea, eta 2002ko otsailaren 4an inauguratu zuten. Beheko solairua Antzuolako Udalarena da, eta hainbat erabilpen ematen dizkio solairu horri. Lehenengo solairuan KZGunea dago orain dela hilabete gutxitik. Bigarren eta hirugarren solairuetan, berriz, Debagoieneko Mankomunitatearen Enpresa Ekintzetako Zentroa dago.

Zentro horren helburua da inizatiba edo ekimen berriak bultzatzea; hau da, hastera donari aukera ematea. Horretarako, lokalak lagatzen dizkie Mankomunitateak ekintzaile berriei, merkatuko prezioekin alderatuta, oso merke. Hainbat baldintza bete behar dituzte ekintzaileek lokal horiek lortzeko, eta hainbat irizpideren arabera erabakitzen du Mankomunitateak bulegoak eman edo ez.

Hamaika bulego prestatu dituzte Oларan etxean. Eta horietako bulego bat zabaldu dute dagoeneko; Bergarako neska bati laga diote, Mireia Alberdiri, hain zuzen ere, dietetika kontsulta jar dezan. Arrasaten ere badago era horretako beste zentro bat; hantxe hamasei bulego eta hainbat industria pabilioi daude.

Helburua, esan bezala, hasiberriei laguntzea eta bultzada ematea izanik, hiru urterako lagatzen diete bulegoa. Hiru urte horietan merkatuan euren tokia topatu eta merkatura jauzi egiteko moduan egongo dira enpresa berriok.

Oraingoz bulego bakarra abian jarri duten arren, denborarekin gero eta ekintzaile berri gehiagori aukera emango dio Mankomunitateak. Informazio zabalagoa nahi izanez gero, Arrasateko bulegoetara jo dezakezue.



Oларan etxeko Enpresa Ekintzetarako Zentroan hamaika bulego daude guztira.



Mireia Alberdi bergararrari eman diote lehendabiziko bulegoa.

*Ekintzaile berriendako hamaika bulego daude Oларan etxean*

*Dagoeneko bulegoetako bat zabaldu dute, dietetika zentroa, hain zuzen ere*

*Mankomunitatearen helburua da inizatiba edo ekimen berriak bultzatzea*

### LABUR

#### Erretiratuendako hitzaldia egingo dute martitzenean

Datorren martitzenean, ekainaren 10ean, erretiratuendako hitzaldia egingo du Julian Bereziartua maiatzeko 17an. Oларan etxean izango da hitzaldi hori, martitzenean, 17:30ean.

Nahiz eta hitzaldia erretiratuendako izan, guztion intereseko izan daiteke; izan ere, urteek aurrera egin arren, ahalik eta gazteen eta osasuntsuen egoteko zer egin dezakegun azalduko dugu Julian Bereziartuak hitzaldi horretan.

#### Idolaz-ek jaietarako Pegatina Lehiaketa antolatu du

Gero eta gutxiago geratzen da jaietarako, eta urtero moduan Pegatina Lehiaketa antolatu du Idolaz euskara elkarteak.

Euskararekin lotutako esaldi bat asmatzea da lehiaketaren helburua. Bi sari ezberdin jarri dituzte: esaldi diseinu eta guzti aurkeztu gero, 100 euro jasoko dituzte bazleak; diseinurik gabeko esaldiak, berriz, 60 euroko saria izango du. Ekainaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira esaldiak. Udal Liburutegian.

#### Urkiolara irteera antolatu dute erretiratuek

Datorren asteko egubakoitzean, ekainaren 13an, erretiratuaren elkartek irteera antolatu du. Urkiolara joango dute erretiratuak egun-pasatu 09:00etan plazatik irteerarako. Gehienez 55 lagunendako tokia dago.

Irteerarako izena emateko nahi izanez gero, erretiratuaren egoitzara jo dezakezue ekainaren 7an eta 9an, zapeketa eta astelehenean, hain justu 18:00etatik 19:00etara. Pertsona bakoitzak 22 euro ordaindu beharko ditu.

ELKARRIZKETA

ARITZ BERRAONDO/PILOTARIA

*“Lehen mailan banakakoa ondo prestatzea izango da garrantzitsuena”*

Azkeneko momentura arte ez dugu jakin izan zer gertatuko zen Aritz Berraondorekin datorren denboraldian. Azkenean, Imazi 22-12 irabazita, datorren denboraldian lehen mailan jokatu du Aritzek.

**Astebete lehenago Peñagarikanoren aurka finaleko partidua galdu ostean, zelan zeunden astelehenean?**

Partidu hasieran igarri egiten da; beti etortzen dira burura horrelakoak, baina behin partiduan sartu nintzenean, ondo jokatzen hasi nintzen eta horiek guztiak ahaztu egin nituen.

**Fisikoki ondo zeunden?**

Txapelketa luzea izan da, badi-ra hiru bat hilabete prestatzen hasi ginela, eta domekan finala jokatu, galdu eta astebetara berriro horrelako beste partidua bat jokatu behar izatea gogorra da. **Partiduaren hasieran lau tantoz aurretik jarri zen Imaz. Horrek ez zintuen urduritu?**


Partidu hasiera oso garrantzitsua izaten da, eta horrelako partiduetan, gainera, nahiko urduri irteten naiz. Beti etortzen dira burura hainbat gauza, eta astelehenean ere gogoratu nintzen finaleko partiduekin, baina, esan dudan moduan, partiduan nahiko azkar sartu nintzen eta ondo ibili nintzen.

**Lehen mailako txartela Imazek opari egin dizula ere irakurri dugu egunotan.**

Kazetari bakoitzak berari iruditzen zaiona jartzeko eskubidea dauka, baina nik uste dut inork ez duela ezer opari egiten. Dena dela, beti jakin behar da kritikak eta horrelako komentarioak ondo hartzen.

**Bigarren mailan egin duzun urtebete hau zelan joan da?**

Nahiko justu ibili naiz gorpuzteaz, eskuakin ere arazoak izan ditut eta kostatu egin zait jokoak



*“Oraingo denboraldian nahiko justu ibili naiz, arazoak izan ditut eskuakin”*

hartzea. Dena dela, gogor egin dugu lan; emaitzak hor daude. **Datorren denboraldian lehen mailan jokatzeko aukera izango duzue. Zelan ikusten duzue etorkizuna?**

Lehenengo, atseden hartzeko gogoak daukat. Bestalde, uda ere

*“Txapelketa oso luze joan zait; badi-ra hiru hilabete prestatzen hasi ginela”*

hor dago, eta politik izaten dira udako partidua. Hurrengo denboraldiari begira, berriz, banakako txapelketarako ahalik eta ondoen prestatzea izango da garrantzitsuena, lehendabiziko partidua irabazteko. Bestela, bada, berriro sufritu behar.

FUTBOLA

Gazteek mailaz igotzeko aukera dute

AINTZANE IRIZAR

Gazte mailako futbol taldeak denboraldi bikaina egin du eta igoera fasea jokatu du. Bigarren mailan jokatu du aurten Antzuolak, baina datorren denboraldian lehenengo mailan jokatzeko aukera dauka. Domekan, hain zuzen ere, jokatu dute igoera erabakiko duen partidua.

Igoera fasea orain dela bi aste bukatu zuten, eta euren taldean bosgarren geratu ziren antzuolarrak. Lehendabiziko laurak igotzen dira lehen mailara, baina horietako bik ez dute igotzeko aukerarik, lehen mailan badute eta taldea. Igoera lortzeko, antzuolarrak Behobiaren aurka jokatu beharko dute domekan, Irunen. Aurreko astean etxean jokatu zuten, eta 4-3 irabazi zieten irundarrei. Domekan irabaziz gero, hortaz, mailaz igoko dira gazte mailakoak.

Erregional mailakoek, berriz, bukatu dute denboraldia; eta gazteek domekan jokatu dute azkeneko partidua.

**ERREGIONAL MAILAKOEK BUKATU ZUTEN**

Erregional mailakoek, gainera, uste baino lehenago bukatu zuten. Izan ere, Kopako finalerdietarako txartela eskuan zutela, azkeneko momentuan txartel hori barik geratu ziren. Kontua da Lazkaok Arrateren aurka jokatutako azkeneko partidua bertan behera laga zutela, eibartarren taldea zazpi jokalarirekin geratu zelako. Lazkaok ez zuen behar beste gol sartzeko aukerarik izan, eta erreklamazioa aurkeztu zion Federazioari. Hark erreklamazioa onartu eta geratzen ziren minutuak jokatu zituzten. Gauzak horrela, Lazkaok behar zituen golak sartu zituen, Antzuola txapelketatik kanpo geratu zen, azkenean.

LABUR

Bi hilean behin etorriko dira erabilitako olio eta beste hainbat hondakin jasotzera

Debagoieneko Mankomunitateak hil honetan, ekainean, jarriko du abian Puntu Berde Mugikorra izeneko zerbitzua. Zerbitzu horren helburua da sukaldean erabilitako landare-olioa eta bestelako hainbat hondakin jasotzea; hala nola: pilak, erradiografiak eta bateriak.

Antzuolaren kasuan, ekainean hasita, bi hilean behin etorriko da Puntu Berde Mugikorra, hilabete azkeneko egubakoitzean, hain zuzen ere. Azoka ere egubakoitzetan egiten dutenez, azoka egoten den lekuan bertan jarriko dute zerbitzua, 09:00etatik 13:00etara.

Hurtzaindegia jartzeko eskatu berri dio Antzuolako Udalak Eusko Jaurlaritzari

Eusko Jaurlaritzaren asmoa da hurtzaindegia eskatzen duten udalekin batera partzuergo eratztea eta hainbat irizpideren arabera herri batzuetan hurtzaindegia jartztea. Deialdi horri jarraituz, Antzuolako Udalak ere, herrian beharizan hori dagoela ikusita, Eusko Jaurlaritzari eskatu dio partzuergo horretan Antzuola ere kontuan hartzea. Mireia Unamuno alkatearen esanetan, laster izango dute batzarra Jaurlaritzako ordezkariekin. Badirudi, dena dela, prozesua luzatzen doala eta zaila izango dela datorren ikasurte hasierarako hurtzaindegia izatea.



*Juan Cruz*

**ARGAZKIAK**  
Ezkontza erreportaiak  
Jaunartze erreportaiak  
Momentuko argazkiak  
Estudioko argazkiak

**BITXITEGIA**  
Marrokineria  
Erlojuak, Bitxiak  
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

*Tomas Gezalaza*

**Zoruen kutxilatua eta barnizaketa**

Kalegoi 21  
Tf. eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

*Tomas Gezalaza*

**Apainketarako eta industriarako pinturak**

**Paper margotuak**

**Moketak eta tapizatuak**

Kalegoi 21  
Tf. eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko maiatzaren 17a / 98. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

## Elgetan amaituko da aurten Emakumeen Birako erlojupekoa

IRATI AGIRREAZALDEGI

Datorren ekainaren 12an hasiko da lurretan aurtengo Emakumeen Bira. Guztira, lau etapa eta erlojupeko proba jokatu dituzte txirrindulariek. Erlojuaren aurkakoa Elgetan amaituko da ekainaren 14an eta hurrengo eguneko etapa Uberan hasiko dute.

Lau etapa eta erlojupeko proba izango ditu aurtengo Emakumeen Birak. Iurretako Txirrindulari Taldeak hamasei urtez jarraian antolatu duen lasterketa ekainaren 12an hasiko da Iurretan eta bertan izango du amaiera ekainaren 15ean.

Tartean Elgeta ere bisitatuko dute txirrindulariek. Ekainaren 14an, Elorriotik abiatuta, 5,8 Km.ko erlojupeko proban aritu behar dira eta etapa honek Elgetan izango du amaiera.

Hurrengo egunean, berriz, Ubera auzoan hasiko da Emakumeen Birako azken etapa eta Iurretan amaituko da lasterketa.

Emakumeen artean goi mailan ari diren txirrindulariek hartuko dute parte. Esaterako, Bizkaia-Spiuk-Sabeko taldeko Joane



Joane Somarriba, orain dela bi urte Elgetan garaile izandakoa, aurten ere partaideen artean izango dela iragarri dute.

Somarriba, orain dela bi urte Elgetan amaitu zen etapan txapeldun izandakoa nor baino nor arituko da, beste hainbat txirrindulari euskaldunekin.

### EUSKAL BIZIKLETA DOMEKAN

Bestalde, jadanik martxan da aurtengo Euskal Bizikleta. Ekainaren 4an hasi eta 8ra bitartean jokatu da proba, eta azken eta-

pan, domekan, txirrindulariak Elgetatik pasatuko dira. Etaparik gogorrena dela diote, besteak beste, mendiko zortzi portu igo behariko baitituzte.



### Txapela taldea derbiko irabazle

Elgetako bi taldek elkarren aurkako derbia jokatu zuten zapatu arratsaldean areto futbol txapelketan. Txapela taldekoak nagusitu ziren La Kokotxako jokalarien gaitetik. Esperientzia gradu bat dela erakutsiz Txapelakoei 11 gol sartu zieten gazteagoei eta hauek bakarra egin zuten.

Jardunaldi honen ostean, La Kokotxako puntu bat bera ere lortu gabe jarraitzen dute partidu guztiak galdu baitituzte. Txapelak, berriz, jokatuak lau partidutatik bi irabazi ditu./I.A.

### LABUR

#### Bi hilabeteen behin batuko dute erabilitako olioia

Debagoieneko Mankomunitateak "Puntu Berde Mugikorra" izenpean etxean erabilitako olioia eta hondakin arriskutsuak biltzeko zerbitzua jarriko du martxan. Orain arte, hilean behin, Udalen bitartez, egiten zen olio biltzea Elgetan, baina hementik aurrera bi hilabeteen behin egongo da kamioia herriko plazan lau orduz. Olioaz gain, erradiografiak, pilak, bateriak, tonerrak... bezalako hondakin arriskutsuak ere batuko dituzte.

#### Mendi Museoko lanak aurreratzea eskatu du Udalak

Elgetako Udalak Debagoieneko Lurralde Planaren gaineko hiru alegazio aurkeztu ditu. Horietako bat herriko ekipamendu eta espazio libreen gainekoa da. Besteak beste Mendi Museoa egiteko lanak planaren lehenengo lau urtekorra (2003-2006) aurreratzeko eskaria egin du Udalak. Horretarako Mendi Federazioarekin elkarlanean arituko litzateke Udala, museoaren kokapena zehazteko. Honetaz gain, kirol guneak aisialdi leku izendatzea eskatu du.

#### Egunkariaren aldeko zozketa txartelak salgai

Egunkariaren aldeko Elgetako herri batzordeak, euskarazko egunkari berriaren proiekturako dirua lortzeko asmoz zozketa egingo du. Horretarako, txartelak jadanik jarri dituzte salgai herriko tabernetan. Elgetarrekin euro baten truke erosi ahal izango dituzte txartelak eta horrekin Ostatu jatetxean aitari bat irabazteko aukera izango dute. Zozketa batzordea prestatzen ari den Egunkariaren aldeko egunean egingo dute.

JAIK

# Asentzio Eguneko jaia euripean amaitu zen

I.A.

Asentzio Eguna ospatu zuten elgetarrek joan den domekan. Goiz-rako antolatutako mendi ibilaldian jende gutxi hartu zuen parte. Baina txorizo usaina hartuta-edo, pixkanaka Gure Borda elkartera inguratu ziren herri-tarrak hamaiketako egitera.

Bitartean, herriko txiki-ek txorizoa amu moduan erabiliz karramarro gehien zeinek harra-patu lehian jardun zuten.

**BAZKARIA PAGOPEAN**

Eguraldiaren beldurrez-edo, mezaren ostean bazkaltzera pagopera joan ziren bertaratutakoak. Baina zuhaitzak itxuraz ez ziren nahikoa izan euritik babesteko. Zaparrada hasi bezain laster dena batu eta Elgetara joan ziren herri-tarrak.

Asentzio Eguneko jaia, hortaz, herrian amaitu zuten elgetarrek. Bolo jokoa antolatu zuten, eta trikiti doinuekin txikiteoa egin zuten herriko tabernetan.



Asentzioko putzuaren inguruan bizikleta lasterketa egin zuten herriko umek.



Dantzarik ez zen falta izan Asentzio Eguneko jaietan.

ELKARRIZKETA

JOSU DE VEGA/DANBORRADA KO ANTOLATZAILEA

## “Danborradan estreinatuko dugun Elgetako himnoa oso solemnea da”

I.A.

**B**erezkoa du Josu De Vegak danbor jotzaile sena. Gaztetan Elorrioko danborradan ibilitakoa izanik, Elgetan ere danborradaren beharra sumatu zuen, eta laugarren urtez jarraian antolatu du danborrada jaietan.

**Zelan hasi zineten Elgetan danborrada antolatzen?**

Lagun artean sortutako ideia da danborrada egitearena. Bertan geundenok danborra edo barrila jotzeko gogoz geunden. Gainera, nik gaztetan Elorrioko danborradan jotzen nuen, eta bertako antolatzaileekin harremanetan jarri eta Elgetan gurea egitea erabaki genuen. Aurten laugarren urtea izango da.

**Aurten izango da berri-tsunik danborradan, ezta?**


Hala da, bai: Elgetako himnoa aurkeztuko dugu aurtengo jaietan. Alfredo González Chirlaquek, Bergarako Musika Bandako zuzendariak, bereziki prestatu du guretako ereserkia. Orfeoira-ko konposatu zuen obra, eta horren moldaketa egin du danborradarako. Gainera, umek eta helduok batera joko dugunez, ekitaldia inoiz baino hunkigarriagoa izango dela uste dut.

**Zelakoa da ereserkia?**

Martxa izan arren, baliteke jendeak oso pieza solemnea dela pentsatzea. Donostiako martxaren antza du, danborradarako gainerako piezetatik zelanbait desberdintzen dena.

**Danborradak badu estimaziorik elgetarren artean?**

Urteotan jaietan jende gehien erakarri duen ekitaldia izan da. 200 lagun inguruk jardungo dute danborradan, eta Elgetan 1.000 biztanletik behera izanda, senide eta lagun artean jende asko inguratuko da. Oraindik ez dakigu plazan guztiok kabituko garen, eta pentsatzen ari gara lekua zelan antolatu denok sartzeko.



ARGAZKILARIA XXXXXXXXX

*“Lagun artean pentsatu genuen danborrada antolatzea orain dela lau urte”*

*“Umek eta helduok batera joko dugu aurten, eta guztira 200 elgetarretik gora izango gara”*

**Aurten Intxorta elkarteak omentuko duzue. Zelan egin duzue aukeraketa?**

Urtero omentzen dugu norbait danborradan, eta aurten Intxorta aukeratzeko arrazoia danborradan elkarte horretako jende askok parte hartzen duela izan da.

**Danborradako zein pieza aukeratu zenuke?**

Aurten Elgetako himnoa berezia izango da, estreinaldiak beti bereziak izaten dira-eta. Baina nik gustuko ditut *Hau dok hau!* eta Mutrikuko himnoa, baita Deba-ko martxa ere.

**BOLINAGA METALAK**

**SALBADOR 7 ELGETA 20690 GIPUZKOA**  
TEL: 943 76 80 64  
FAX: 943 76 83 01

**Aperribay, s.l.**

*Marmoldegi eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**

**RECYDE, S.A.**

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

**AENOR ER**  
Enpresa Erregistratua  
ER-0182/2/95  
ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

## ERRETRATUZAHARRA

## Murgizu anai-arrebak barraketan, 1962. urtearen inguruan

**A**lboko argazkia 1962. urtearen ingurukoa da. Itziar Murgizuk adierazi digunez, sasoi hartan barrakak gaurko Ibargarai kalean jartzen zituzten Pazkoetan. Hain zuzen ere, Miguel Altuna Ikastetxetik Etxepare liburu dendara doan tartean zuhaitzi bat zegoen, eta hantxe egoten ziren barrakak: karabina tiroketa, trapuzko piloten jaurtiketa, tonbolak, umeendako barrakak eta beste hainbat postu egoten ziren jaietan, barkilloak, gozokiz estalita-ko sagar erreak eta kukuru-txoak saltzen zituztenak tartean.

Zalantza barik, umeek pasatzen dute ondoen barraketan. Argazkian agertzen direnak Murgizu anai-arrebak dituzue: Josuren, Izaskun eta Itziar. Eta eurekin batera agertzen dena izeba Purita Bakaikoa da. Hor dituzue laurak, zintzo-zintzo, eguzkitako betaurreko dotoreekin, *Pedro Mari* izena zuen txalupa baten bidaia hasteko gertu. Antza, 1960ko hamarkada hasieran barraka gehienak egurrezkoak ziren.

Argazkia: Itziar Murgizu.

**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

**LAGUN GARAJEA****ad**<sup>®</sup>

Tailer profesionala

Mekanika orokorra

**ZORIONAK  
GUZTIOI!**

Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20



**umelaga**  
JATETXEA

*Jai zoriontsuak izan  
ditzazuela denok!*

San Antonio 5 BERGARA. Tel. 943 76 20 21

**62 urte zuen zerbitzura!**

Deutsche Post  World Net  
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



# Festa zoriontsuak opa dizkizue

DHL Express Bergara - San Juan Erreka 33 - 20570 Bergara  
Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

[www.guipuzcoana.com](http://www.guipuzcoana.com)



# Opel Meriva berria



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

%100 Meriva | %100 malgua



Konturatu zara malgua izanda etekin handiagoa ateratzen diozula bizitzari? Izan ere, horrela askatasun handiagoa daukazu. Bost, lau, hiru edo bi eserlekuren artean aukeratu gura duzu? Eserleku guztiak etzangarriak izatea gura duzu? Horiek aurrerantz eta atzerantz eraman ahal izatea gura duzu? Baita aldeatarantz ere? FlexSpace sistemak milaka aukera eskaintzen dizkizu. Zuretako egin dugu. Opel Meriva berria da.

## Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)